 - a) Ikastegietan: lehenengo arduraduna dekanoa edo ikastegiko zuzendaria izango da, eta bigarren arduraduna ikastegiko administratzailea edo, halakorik badago, administrazio burua.
 - b) Unibertsitate sailetan: lehenengo arduraduna saileko zuzendaria izango da, eta bigarren arduraduna saileko idazkari akademikoa.
 - c) Unibertsitate institutueta: lehenengo arduraduna institutuko zuzendaria izango da, eta bigarren arduraduna institutuko idazkaria.
 - d) Zerbitzu zentraletan: lehenengo arduraduna gerentea izango da, eta bigarren arduraduna kontabilitate zerbitzuko burua.
 - e) Errektoreordetzeta: Lehenengo gerenteordea izango da campusen kasuetan eta zerbitzu burua era honetako postua duten zerbitzuetan eta bigarrena errektoreordeak izendatuko lukeen pertsona izango da.
 - f) Zerbitzuetan: lehenengo arduraduna errektoreordea edo zerbitzua bere menpe duen pertsona izango da, eta bigarren arduraduna zerbitzuko burua edo errektoreordeak izendatzen duen pertsona.

- g) Aldi baterako gune organikoetan: lehenengo arduraduna proiektu, kontratu, diru laguntza, ikastaro, graduondoko ikastaro, biltzar edo bilkura zientifikoaren arduradun nagusia izango da, eta bigarren arduraduna izango da lehen arduradunaren saileko zuzendaria.
- 3. Aldi baterako gune organiko baten lehen arduraduna unitate horren gaineko ardura duen unitate organikoaren lehen arduraduna ere baden kasuetan, aldi baterako gunearen bigarren arduraduna ikastegiko batzarrak, saileko kontseiluak edo institutuko kontseiluak hautatuko du bere baitako kideen artean.
- 4. Aldi baterako unitate organikoa ikastegi bateko jardueraren baterako eratuko balitz, lehenengo arduraduna ikastegiko administratzailea izango da, eta bigarren arduraduna ikastegiko dekanoa edo zuzendaria.
- 5. Aurreko puntuetan jaso ez diren kasuetan, aldi baterako gastu gunearen arduradunak gerenteak izendatuko ditu.

II. KAPITULUA. Gune organikoak sortu, aldatu eta ixtea.

3. artikulua. Gune organiko bat sortu edo aldatzea.

Kasuan kasuko errektoreordetza, unitate, zerbitzu edo dena delakoak, jardueraren arabera, eskabidea egingo dio Kontabilitate Zerbitzuari; bestela, zuzenean ere egin daiteke, kudeaketa gunea sortu edo aldatzeko erabakia hartu duen organo eskudunaren erabakiaren kopiarekin batera.

4. artikulua. Aldi baterako gune bat sortu edo aldatzea.

- 1. Aldi baterako gune organikoak ondoko baldintzak gertatzen direnean sortuko dira:
 - a) UPV/EHUK edo beste erakunde batzuek onartutako ikerketa proiektuak abian jartzen direnean.
 - b) Baliabide batzuk izendatzen direnean jarduera eta xede jakin baterako erabiltzeko. (ikastaroak, biltzarrak...).
 - c) Xede jakin baterako baliabideen kudeaketaren konplexutasunagatik, komenigarria denean baliabide horiek gune organikoaren beste baliabide orokorretatik bereiztea.
- 2. Aldi baterako gune bat sortzeko eskabidea organo hauek egingo dute:
 - a) Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du eskabidea gunea sortu behar denean ikerketa proiektuak egiteko, kontratuak, hitzarmenak, zientzia, teknika edo artearen arloko lanak egiteko eta prestakuntza ikastaroak emateko.
 - b) Graduondoko ikastaroak, master ofizialak, doktoregoak, berezko tituluak eta bestelako ikastaroak egiteko guneak sortu behar direnean, eskabidea Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak egingo du.
 - c) Beste edozein errektoreordetzak.

Aldi baterako gune organiko bat sortu edo aldatu behar denean, Kontabilitate Zerbitzuari egingo zaio eskaria, horretarako inprimakiak betez.

5. artikulua. Gune organiko bat ixtea.

1. Burutu beharreko jarduera amaitutakoan, jarduera horretaz arduratu den gune organikoa ixteko eskabidea aurkeztu beharko zaio Kontabilitate Zerbitzuari. Soberako krediturik geratuko balitz, nora joango den adierazi beharko da eskabidean, erretiratu ahal izateko.
2. Aldi baterako gune organikoen kasuan, organo hauek aurkeztu beharko dute gunea ixteko eskabidea:
 - a) Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du eskabidea itxi beharreko unitateak izan direnean ikerketa proiektuetarako edo kontratuak, hitzarmenak, zientzia, teknika edo artearen arloko lanak eta prestakuntza ikastaroak egiteko.
 - b) Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak egingo du eskabidea graduondoko ikastaroak, master ofizialak, doktoregoak, berezko tituluak eta gainerako ikastaroak egiteko guneak itxi behar direnean.
 - c) Aurreko ataletan zehaztutakoa gorabehera, guneari zegokion jarduera amaitu dela iritziz gero, Kontabilitate Zerbitzuak gune hori ixtea proposatu ahal izango du. Hala eginez gero, horren berri jakinarazi beharko dio kudeaketa gunearen lehen arduradunari.
3. Gune organiko iraunkorren kasuan gunearen lehen arduradunak egin beharko du gunea ixteko eskabidea, eta horrekin batera organo eskudunak hartutako erabakiaren kopia aurkeztuko du.
4. Gune organiko bat badago ikerketa proiektu, kontratu, diru laguntza, ikastaro, berezko titulu, biltzar, bilera zientifiko edo antzeko baterako, oraindik aktiboan badago eta baliabiderik badauka, baina gunearen arduraduna den irakasle eta ikertzaileak UPV/EHUKoa izateari uzten badio, arduradun berria izendatu beharko da.

Gune organiko bat badago ikerketa proiektu, kontratu, diru laguntza, ikastaro, berezko titulu, biltzar, bilera zientifiko edo antzeko baterako sortua, bere jarduna amaitu bada eta baliabiderik geratzen bazaio, itxi egingo da gunea eta haren aurrekontuaren kitapena egingo da.

6. artikulua. Kontabilitateko saldoen egiaztapena eta trataera.

Gune organiko bat ixteko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Ez egotea gastu guneak egindako aurrerakinik kitatu edo justifikatu gabe.
2. Ez egotea eskudirurik kutzako saldoan.

III. KAPITULUA. Banku kontuak

7. artikulua. Banku kontuen ezaugarriak.

1. UPV/EHUKo kontu ofizial guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Kontu horiek guztiak Kontabilitate Zerbitzuaren bidez ireki, aldatu eta itxiko dira.
 - b) Kontabilitate Zerbitzuak izango duen banku kontuen erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

- c) Bi arduradun izango dituzte, eta bien sinadurak beharko dira.
2. UPV/EHUK finantza zerbitzuak kontratatzen ditu aldiro hainbat finantza erakunderekin, besteak beste gastu guneen banku kontuak kudeatzeko. Hori dela eta, banku kontuak finantza zerbitzu horiek esleitu zaizkien finantza erakundeetan baino ezin izango dira ireki.
 3. Salbuespenezko kasuetan baimena emango da kontuak beste finantza erakunde batzuetan irekitzeko. Kontabilitate Zerbitzuari eskatu beharko zaio baimena, horretarako arrazoi objektiboak azalduz. Kontabilitate Zerbitzuak kontu hori mantentzeko izapideak eta betekizunak ezarriko ditu.

II. TITULUA. GESTIO EKONOMIKOA

IV. KAPITULUA. GASTUA BAIMENTZEA ETA ORDAINKETAK ETA BANKU ERAGIKETAK AGINTZEA.

8. artikulua. Gestio ekonomikoa.

1. Gastuaren izaeraren arabera bete beharreko kontratazio arau espezifikoak betetzeaz gain, kudeaketa ekonomikoa egitean berezi beharko dira gastuen onarpena, gastu horien ordainketa eta banku eragiketak.
2. Gastuaren onarpena esaten zaio gune organikoaren jardura ekonomikoaren ondorioz sortutako faktura edo antzeko agiri bat onartzeari.
3. Ordainketaren onarpena esaten zaio egindako gastuen fakturak ordaintzeko aginduari. Ordainketaren onarpena gastuaren onarpenaren ondorengo edozein unetan egin ahal izango da. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legean epe bat ezartzen da fakturak ordaintzeko. 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra bitartean, administrazioek hogeita hamar eguneko epea izango dute 200. artikuluko 4. atalean aipatutako obligazioen prezioa ordaintzeko. Kontratua osorik edo zati batean burutu dela egiaztatzen duten agiriak egiten diren egunean edo obren ziurtagiriak egiten diren egunean hasiko da zenbatzen aipatutako epea.
4. Ordainketa aurrez egin ahal izango da, eragiketaren baldintza ekonomikoetan hala hitzartu baldin bazen. Hala eginez gero, hornitzaileak nahitaez aurkeztu beharko du aurrez ordaindutako zenbatekoari dagokion banku abala.

9. artikulua. Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea gune organiko iraunkorretan.

Gestio ekonomikoaren ardura lotuko zaio ikastegi, sail, institutu, errektoreordetza edo zerbitzuaren barne arautegian ezarritakoari.

Sortzen den dokumentazioa (fakturak, egiaztagiria...) gune organikoaren bi arduradunek sinatu beharko dute.

10. artikulua. Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea aldi baterako gune organikoetan.

Gastuaren onarpena gunearen lehen arduradunaren eginkizuna izango da, bera baita

proiektu, kontratu, hitzarmen, ikastaro, biltzar edo dena delakoaren titularra.

Bigarren arduradunak fakturak, kitapenak, egiaztagiriak eta abar sinatu beharko ditu lehen arduradunarekin batera.

Gestio lanak administrazio eta zerbitzuetako langileek egingo dituzte.

III. TITULUA. DIRUZAINZAREN GESTIOA UPV/EHUn

V. KAPITULUA. DIRUZAINZAREN FUNTZIONAMENDUA

11. artikulua. Diruzaintzaren funtzionamendua.

Unibertsitatean Kontabilitate Zerbitzuak kudeatuko du diruzaintza osoa, Gerentziak emango dizkion aginduei jarraiki.

Normalean, ordaintzeko egunak aste bakoitzeko astelehen eta ostegunak izango dira. Egun horietan egingo da ordaintzeko agindua eman arte sortutako dokumentu guztien ordainketa. Dena den, une jakin batean premia berezia badago, segituan egin ahalko da ordainketa, eta kontrakoa: gerta liteke ez ordaintzea, likidezirik ez badago.

ORDAINKETEN ARAUBIDEA

ORDAINKETEN ARAUBIDEA

I. TITULUA. ORDAINKETEN GESTIOA UPV/EHUn

I. KAPITULUA. ORDAINKETAK EGITEKO ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ordainketen gestioa.

1. Kasu guztietan eta nahitaez, ordainketen kudeaketa egingo da gastua aurretik kontabilizatuz eta gero kontura kargatuz, Kontabilitate Zerbitzuak agindua eman ondoren.
2. Salbuespen bakarrak izango dira helbideratzeak (5. artikuluan arautzen direnak) eta dibisen erosketa. Kasu bietan aurrena kargua egingo da, eta ondoren kontabilizatuko da.

2. artikulua. Ordaintzeko bideak.

1. UPV/EHUren kudeaketa sistemako ordainketa moduak erabiltzeko zorrotz bete beharko dira hurrengo artikuluetan zehaztuko diren arauak. Edozein modalitate erabili ahal izango da, hurren adieraziko diren mugen barruan.

II. KAPITULUA. UPV/EHUn ERABIL DAITEZKEEN ORDAINKETA MODUAK

3. artikulua. Ordainketa mekanizatuak.

1. Hau izango da ohiko modua gune organikoek egin beharreko ordainketa guztietan.
2. Diruzaintzaren funtzionamendua azalduta dago Gestio Ekonomikoaren Araubide Orokorreko III. Tituluko V. kapituluan.

4. artikulua. Banku helbideratzearen bidezko ordainketak.

1. Modu hau bakarrik erabiliko da elektrizitatea, telefonoa, ura, gasa eta zabor bilketari dagozkion udal tasak ordaintzeko.
2. Guztiz debekatuta dago bestelako gastuak helbideratzea.
3. Horiez gain, bestelako gastu atipikoak helbideratu ahal izango dira, Kontabilitate Zerbitzuak horretarako baimena ematen badu. Horretarako, eskabidea egingo da idatziz, eta azalduko dira ordainketa helbideratzeko arrazoiak. Era berean, aurrekontu saila zehaztuko da, eta gastua urtean gutxi gorabehera zenbatekoa izango den. Kontabilitate Zerbitzuak gestionatuko du espediente osoa.

5. artikulua. Banku taloien bidezko ordainketak.

1. Nahiz eta normalean ordainketa mekanizatuak egin (hau da, bankuko transferentziaren bidez), kutxa finkoa daukaten gune organikoek bankuko taloiak ere erabili ahal izango dituzte.
2. Banku taloiak hartzekodunaren izenean bakarrik egin ahal izango dira. Hortaz, guztiz debekatuta dago "eramaileari ordaintzeko" ordainketa dokumentuak egitea.

6. artikulua. Eskuko banku transferentzien bidezko ordainketak.

1. Ordainketa mekanizatu egitea ezinezkoa denean baino ez da erabiliko. Kasu horretan eragiketaren gastuak erdibana ordainduko dirtuzte unibertsitateak eta jasotzaileak.

7. artikulua. Ordainketak esku dirutan

1. Kutxa finkoa daukaten gune organikoek ezusteko gastu txikiak eskudirutan ordaindu ahal izango dituzte.
2. Ekitaldia ixtean, saldoa justifikatzeko, funtsak egotearen ziurtagiri bat sinatu beharko dute kutxaren arduradun guztiek.

III. KAPITULUA. UPV/EHUren KOLABORATZAILEEI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK, EPAIMAHAIETAN, BEREZKO TITULUETAN, MASTERRETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN ARITZEAGATIK

8. artikulua. Lankidetzak.

Kolaborazioaren ordainketan sartu ahal izango dira lanaren ordainsaria, eta joan-etorrien, dieten eta abarren gastuak.

Epaimahai eta batzordeetan parte hartzeagatik eta bestelako kolaborazioengatik ordaindu beharrekoak: irakasle titular edo katedradunen lanpostuak betetzeko lehiaketak, doktorego tesiak, unibertsitatean sartzeko hautaprobak edo ordainsaria jasotzeko eskubidea ematen duten bestelako epaimahai edo batzordeak, bai eta berezko tituluetan, ikastaroetan eta bestelako jardueretan egindako kolaborazioak ere.

- UPV/EHUko langileak: Nominaren bidez ordainduko dira, eta Gizarte Segurantzaren kuota kenduko zaie zenbatekoei, hala dagokionean.
- UPV/EHUz kanpoko langileak: dagokion zenbatekoari PFEZen atxikipena egingo zaio.

Garraio, ostatu, dieta eta halakoengatik, benetan egindako eta frogatutako gastuak ordainduko dira.

9. artikulua. Kolaboratzaileei gastuak ordaintzeko aurrerapenak.

1. Kolaboratzaileei II. kapituluan azaldutako edozein bide erabiliz ordaindu ahal izango zaie, bertan zehaztutako mugen barruan.
2. Edozein bide erabilia ere, bidaia gastuen %50eraino aurreratu ahal izango zaie. Zenbateko hori kalkulatzeko garraio publikoan egindako joan-etorrien, mantenu dieten eta ostatu gastuen batura egingo da.
3. Aurrerapenak kutxa finkoko taloiaz bakarrik egin ahal izango dira.

10. artikulua. Kolaboratzaileei emandako aurrerapenaren kitapena

1. Kolaborazioa amaitutakoan, kitatu egingo da aurrerapena, eta horretarako gastuen agiriak aurkeztu beharko dira. Frogatutako gastua jasotako aurrerapena baino handiagoa balitz, falta den zenbatekoa egoki irizten zaion modua erabiliz ordainduko da. Aurrerapena gastua baino handiagoa izan bada, kolaboratzaileak itzuli egin beharko du jasotako gehiegizko zenbatekoa. Dirua sartu beharko du aurrerapena ordaindu dion gastu gunearen kontuan eta eragiketa hau aurrerapenaren kitapen gisa sailkatuko da.
2. Egindako ordainketaren egiaztagiri gisa gastua egiteko baimenaren kopia bat eman ahal izango zaie ordainketaren hartzaileei. Bertan zenbatekoa, kontzeptua eta helbideraketaren datuak agertuko dira.

II. TITULUA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK LAGATZEA

IV. KAPITULUA. FAKTURA ETA OBRA EGIAZTAGIRIAK ENDOSATZEA

Artículo 11. Endosuaren izaera.

1. Endosua da egintza administratibo bat, zeinaren bidez UPV/EHUK konpromisoa hartzen duen hirugarren batek (lagatzaileak) egindako faktura edo obra ziurtagiri bat beste hirugarren bati (endosu hartzaileari) ordaintzeko, lagatzailearen eskariz.
2. Faktura edo obraren ziurtagiriaren endosua egiteko, beharrezkoa da aldez aurretik jasota egotea horretarako eskumena duen pertsonak onartzen duela endosua.
3. Endosua berau erregistratuz formalizatuko da. Horretarako, endosuaren erregistroaren kopia eta fakturaren edo obraren ziurtagiriaren kopia emango zaizkio lagatzaileari, honela lege jasota gera dadin endosua onartzen duela.
4. Ezin izango da endosurik erregistratu, baldin eta faktura edo obraren ziurtagiria baldintza legalen baten pean balego zenbatekoari edo ordainketaren iturriari dagokionez, edo, oro har, ordainketa galaraz lezakeen xehetasun formalen bat balego.

12. artikulua. Endosuaren ondorioak.

1. Endosu bat erregistratuz gero, UPV/EHUK konpromiso legala hartzen du dagokion zenbatekoa ordaintzeko fakturaren edo obraren ziurtagiriaren titularrak esandako endosu hartzaileari.
2. Endosatutako faktura edo obraren ziurtagiria legez dagokion epean ordaindu beharko da.

13. artikulua. Endosuaren indarraldia.

1. Endosua egindakoan suertatuko balitz prestazioa, hornidura edo obraren ziurtagiria eman duenari legezko zigorren bat ezarri behar zaiola zerbaitegatik, endosuak indarrean egoteari utziko lioke, eta hortaz, ez litzaioke faktura edo obraren ziurtagiria ordainduko endosuaren hartzaileari, eta horren berri emango litzaioke lagatzaileari.
2. Gorabehera horiek Kontabilitate Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio bere garaian faktura edo obraren ziurtagiria onartu zuen pertsonak, zerbitzu horrek horren berri eman diezaion endosuaren hartzaileari.

14. artikulua. Endosu eskariaren tramitazioa.

1. Endosuaren erregistroa faktura edo obraren ziurtagiria onartu duen pertsonak hasiko du. Horretarako, faktura edo obraren ziurtagiriarekin batera, aurkeztu beharko du notarioaren ahalordea, zeinaren bidez endosua eskatzen duen pertsonari ahalmena ematen zaion lagatzailearen izenean aritzeko. Pertsona fisikoen kasuan, nahikoa izango da nortasun agiria edo pasaportearen aurkeztea.
2. Endosuaren erregistroa Kontabilitate Zerbitzuan egingo da, I. eranskineko ereduaren erabiliz, eta endosuen erregistro nagusian gordeko da.

V. KAPITULUA. LAGATZAILEAREN BIDEZ ORDAINTZEA

Lagatzailearen figura erabiltzen da unibertsitateko langile batek faktura bat ordaintzen dionean hornitzaile bati unibertsitatearen izenean, eta gero gastu hori kontabilizatzen denean hornitzailearen izenean, zeina hirugarren parte gisa agertzen baita.

Halakoetan "gastu dokumentuekin" batera, ordainketaren agiria aurkeztu beharko da.

I. ERANSKINA

ENDOSUAREN ERREGISTROA

ENDOSUAREN ZENBAKIA: _____ ENDOSUAREN ERREGISTROAREN DATA: _____

ENDOSU EMAILEA. IFZ: _____ -Izena: _____

ENDOSU HARTZAILEA. IFZ: _____ -Izena: _____
--

FAKTURA ENDOSATUA - Faktura zk.: _____ - Zenbateko gordina: _____ - Zenbateko likidoa: _____
--

KONTABILITATE DATUAK - Kontabilitate erreferentzia: _____ (1) -Kontratu zenbakia: _____ (1)
--

_____ (e)n, _____ .eko _____ aren ____ (e)an (3)

Endosu emailearen izenean (2)	Endosu hartzailearen izenean (2)	Kontratazioaren arduraduna (2)	Kontabilitateko arduraduna (2)
-------------------------------	----------------------------------	--------------------------------	--------------------------------

(1): Kontratazioaren arduradunak kontabilitate datuak adierazi beharko ditu, halako daturik balego.

(2): Lauki bakoitzean sinadura eta zigilua jarri beharko dira.

(3) Endosua erregistratzeko eskabidearen data.

DIRU SARREREN ARAUBIDEA

DIRU SARREREN ARAUBIDEA

SARRERA

Arautegi honen bidez diru sarrerak sailkatu, eta sarrerak kudeatzeko arauak eta prozedurak finkatzen dira. Haren helburua da UPV/EHUREN baliabide guztien kudeaketa eta kontabilizazio eraginkorra lortzea, baliabideok EAEK emandako diru laguntza izan, baliabide propioak izan edo ekitaldian zehar sortzen diren bestelako sarrerak izan.

Araubide honek eta etorkizunean egiten zaizkion aldaketek helburu izan behar dute diru sarrera mota guzti-guztiak koherentziaz arautzea eta sarreraren lorpenean zerikusia duten gune ORGANIKOEN gero eta hobeto kudeatzea sarrerok.

Diru sarreraren tratamendua lotuta dago, batetik, sarreraren izaerarekin, eta, bestetik, baliabideak erabiltzen dituzten gune funtzionaletan ezarritako gestio egiturarekin.

I. KAPITULUA. ZERBITZU ZENTRALEN DIRU SARRERA OROKORRAK

1. artikulua. Eusko Jaurlaritzak gastu arrunterako eta kapital gasturako emandako diru laguntzak.

UPV/EHUREN baliabide orokorren parte bat dira. Eusko Jaurlaritzak ematen ditu urte bakoitzeko ekitaldi bakoitzeko gastu arruntak eta inbertsioak finantzatzeko. .

2. artikulua. Beste erakunde publiko batzuen diru laguntzak.

UPV/EHUKO baliabide orokorren parte dira, baina batzuetan xede jakin baterako diru sarrerak dira.

3. artikulua. Tasa akademikoetatik etorritako diru sarrerak.

UPV/EHUKO baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

4. artikulua. Tasa administratiboetatik etorritako diru sarrerak.

- Kopia kautoak, kautotuak, erkatuak edo ziurtagiriak emateagatik kobratzen diren tasak. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezartzen ditu, ikasturte bakoitzean UPV/EHUKO goi mailako hezkuntza zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak zehazten dituen aginduan.

UPV/EHUKO baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

- Kopia soilak emateagatik kobratzen diren tasak. Kopia soilak egiteagatik prezio bat ezarri da, III. eranskinean adierazitakoa.

UPV/EHUKO baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

5. artikulua. Banku kontuetako interesek sortutako diru sarrerak.

UPV/EHUKO baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

II. KAPITULUA. GESTIO GUNEEN BESTELAKO DIRU SARRERA OROKORRAK

6. artikulua. Itxitako aurreko ekitaldietan egindako ordainketak itzultzedaren ondorioz sortutako diru sarrerak.

1. UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta, hortaz, ezin zaizkio gehitu haiek sortu zituen gestio gunearen aurrekontuari.
2. Bere garaian gastu horretarako zegoen aurrekontu partidak xede jakin baterako krediturik izango balu, Kontabilitate Zerbitzuari eskatuko zaio kreditua esle diezaiola sortutako diru sarreraren kontura. Kasu horretan, behar bezala arrazoitu beharko da esleipena ezinbestekoa dela bere garaian ezarritako helburua betetzeko.
3. Honelako sarrerak kudeatzeko prozedura hau izango da:
 - A. Zenbatekoa kontuan sartu dela jakin bezain laster, Kontabilitate Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.
 - B. Itzulitako ordainketa kreditu orokorrekin egin bazen, sarreraren kontabilizazioa baino ez da egin beharko, eta Kontabilitate Zerbitzuak berak egingo du.
 - C. Diru sarrera jaso duen gune ORGANIKOAK eskatuko balu diru sarrera horren kontura kreditua esleitzea, egiaztatu egin beharko du bere garaian ordainketa egin zuela xede jakin baterako kreditu baten kontura. Orduan Kontabilitate Zerbitzuak diru sarrera kontabilizatuko du eta kreditu esleipena egingo dio gune ORGANIKOARI.

7. artikulua. Argitalpen Zerbitzuak sortutako diru sarrerak.

Diru sarrerok egingo dira Argitalpen Zerbitzuak horretarako daukan kontuan.

Sarrera haiek sortzen dira zerbitzuaren argitalpenen katalogoko liburuen salmentatik eta kopia zerbitzuetatik (fotokopiak, enkoaderazioak eta abar). Kontabilitate kasu hauek gerta daitezke:

- Argitalpen Zerbitzuak argitalpenen katalogoko liburuak saltzea edo kopia zerbitzuak egitea unibertsitateko beste gune organiko batzuei: Argitalpen Zerbitzuak "barne kargurako" faktura bat egingo du, eta hori jasotzaileak ordainduko du "barne kargurako" gastu egiaztagiri baten bidez. Honekin ordaindutzat joko da faktura eta amaitutzat joko da eragiketa.
- Argitalpen Zerbitzuak bere argitalpenen katalogoko liburuak saltzea eta kopia zerbitzuak egitea unibertsitatekanpoko guneei, eskatzailearen eskariz banan bana fakturatzen direnak: Argitalpen Zerbitzuak faktura egingo du, eta horiek unibertsitatearen diru sarreratzat joko dira. Faktura hauek behin kobratuta, dagokion kobrantza orriari lotu beharko zaizkio.
- Argitalpen Zerbitzuak kopia zerbitzuak egitea zerbitzuan bertan, eskudirutan kobratuak eta ticketen bidez (BEZa barne) dokumentatuak (sarrera hauek diferentek dira unibertsitateko guneetatik datozenetatik). Zerbitzua kobratzen duen unean Argitalpen Zerbitzuak ticketa sortuko du, eta diru hori dagokion kontuan sartuko du

egoki deritzon maiztasunaz. Gero, "faktura sinplikatu" bat (FS) egin beharko du, bat etorri beharko dena kontuan egindako diru sarrerarekin; beraz, kobrantza orritik egingo da faktura sortzeko eragiketa.

Tarifak V. eranskinean daude.

8. artikulua. Ikastetxe Nagusiak sortutako diru sarrerak.

Diruzaintzan islatu behar diren ikastetxe nagusiaren sarrera guztiak horretarako daukan kontuan egin beharko dira.

Egoitzan ostatu hartzen duten ikasleen kuotek sortutako diru sarrerak dira. Sarrera eta kudeaketa mota hauek egon daitezke:

- Unibertsitateko beste organiko batzuek ordaindutako egonaldiak: egoitzak "barne kargurako" faktura bat egingo du, eta hartzaileak ordainduko du "barne kargurako" gastu egiaztagiri baten bitartez. Honekin ordainduzat joko da faktura eta amaitutzat joko da eragiketa.
- Unibertsitateko gune organikoekin zerikusirik ez duten pertsonen egonaldiak: egoitzak faktura egingo du, eta horiek unibertsitatearen sarreratzat joko dira. Fakturak behin kobratuta, dagokien kobrantza orriari lotu beharko zaizkio.

Irakasle gonbidatuen eta aldi baterako egoiliarren tarifak I. eranskinean daude.

III. KAPITULUA. ALOKAIUETATIK SORTUTAKO DIRU SARRERAK

9. artikulua. Kobratzeko era.

Fakturak ordaintzeko eta errentarien fidantzen diru sarrerak Kontabilitate Zerbitzuak horretarako dauzkan kontuetan egingo dira.

10. artikulua. Alokairuen tramitazioa.

Lokalen titularra den gunean hasten da izapidea, prozedura honi jarraiki:

1. Alokairua hitzartu ondoren ezarrita dauden prezioen arabera, errentariari adieraziko zaio fidantza sartu behar duela unibertsitateak horretarako duen kontuan. Fidantza izango da kopuru osoaren %25, BEZ barik. Alokaturako diren lokalak erabili aurretik sartu beharko da zenbateko hori kontuan.
2. Fidantza sartu ondoren, horren berri eman beharko zaio Kontabilitate Zerbitzuari, eragiketa kontabiliza dezan. Diru sarreraren berri ematearekin batera, faktura sortzeko informazio guztia bidali beharko dio Kontabilitate Zerbitzuari, eta zerbitzuak faktura bidaliko dio errentariari zuzenean. Gero kreditua esleituko dio lokala alokatu duen gestio guneari. Honela egingo du:
 - a) Lokala garbitzeko zerbitzuari dagokion zenbatekoa 25300 ekonomikoari esleituko zaio.
 - b) Langile gastuei dagokien zenbatekoa 15011 ekonomikoari esleituko zaio, kontzeptu horren pean nominaren bidez ordaintzeko eskaria egin dadin.

- c) Alokairuari berari dagokion zenbatekoaren % 50, BEZ barik, bere gastuetarako aurrekontuaren igoera bezala esleituko zaio guneari, 2. edo 6. kapitulutik nahi duen ekonomikoan.

11. artikulua. Fidantzaren kudeaketa.

1. Alokaturako lokalak erabiltzen amaitutakoan, eta kalterik egon ez bada, gune errentatzaileak horren berri emango die Zerbitzu Zentralei fidantza itzul dezaten.
2. Lokalak erabiltzean kalterik sortu bada, horren berri emango zaio Kontabilitate Zerbitzuari, eskubide aitortpena egin dezan fidantzari dagokionez, eta, hartara, konponketak ordaintzeko behar den fidantzaren zatia aurrekontuko sarrera bihur dezan. Fidantzaren gainerako zenbatekoa, ezer geratuko balitz, errentariari itzuliko zaio. Fidantza nahikoa ez bada kalteak ordaintzeko, unibertsitateak neurriak hartuko ditu falta den parteak kobratzeko.

12. artikulua. Alokairuetatik esleitutako kredituen erabilera.

1. Alokairuen diru sarrerekin esleitutako kredituak kreditu orokorrak dira, eta, hala, eskubidea aitortu den aurrekontu ekitaldian baino ezin izango dira erabili.
2. Urtean urtekoari badagokio ere, alokairuetako diru sarreren kreditu osoa ekitaldia ixtean erabili ez bada, hurrengo ekitaldira pasatu ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira:
 - a) Alokairua eta dagokion eskubidearen aitortpena abenduan egin direnez, ezinezkoa izan da guztia erabiltzea ekitaldia itxi baino lehen. Hala gertatuz gero, gerakin hori hurrengo ekitaldira pasatzeko eskatu ahal izango zaio Kontabilitate eta Aurrekontu Zerbitzuari.
 - b) Alokairuak sortutako kreditua hornidura edo obra txiki baterako erabiltzeko konpromisoa dago. Hala gertatuz gero, gerakin hori hurrengo ekitaldira pasatzeko eskatu ahal izango zaio Kontabilitate Zerbitzuari. Eskariarekin batera, hornidura edo obra txikia egiteko kontratua dagoela egiaztatzeke agiriak aurkeztu beharko dira.

13. artikulua. Alokairuei aplika dakizkiekeen tarifak.

1. Alokairuen tarifak, bai orokorrak eta bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateetakoak, II. eranskinean jasotakoak dira, aldiro eguneratuko badira ere.
2. Tarifa hauek UPV/EHUko lokal bat erabiltzeko eskaera egiten duten erakunde publiko zein pribatuei, elkarteei eta pertsona guztiei ezarriko zaizkie. Gerenteak tarifa hauek murriztea erabaki ahal izango du, kasu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

14. artikulua. Ondasun publikoen erabilera pribatiboagatik ordaintzen diren tasak.

Euskadiko Ondareari buruzko Legeak aukera ematen du beste subjektu batzuek UPV/EHUren ondasun publikoak erabili edo modu berezian ustiatzeko, unibertsitateko organo eskudunek emandako lagapen edo baimenen bitartez.

Tasa horren subjektu pasiboak dira emakida eta baimen administratiboaren titularrak, edo, hala dagokienean, haien eskubideak subrogatzen dituztenak.

Tasa ordaindu behar da emakida edo baimena ematen den unean.

Emakida edo baimena urtez urte luzatzen bada, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean ordaindu beharko da tasa.

Tasak ezaugarri hauek izango ditu:

1. Ondasun publikoen erabilera pribatiboagatik urtean ordaindu beharreko tasa izango da ondasun horien balio eguneratuaren %5. Balioa kalkulatu da UPV/EHUko Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorren arabera, kontuan hartuta erabiliko den azaleraren neurria eta non dagoen kokatuta eraikinean.
2. Ondasun publikoaren ustiapen bereziko urteko tasa izango da zerga oinarriaren % 5, ustiapenak sortzen duen onura erreferentzia hartuta.
3. Emakidaren edo baimenaren lehen urtean tasa izango da urte horretan emakida edo baimena indarrean egon den denboraren arabera, hau da, hainbaneketa egingo zaio aurreko paragrafoen arabera dagokion zenbatekoari. Era berean, hainbanaketaren irizpide bera aplikatu da emakidaren edo baimenaren azken urtean.
4. Emakidarekin edo baimenarekin batera onuradunari betebeharrak edo ordezkotza zerbitzu batzuk ezartzen zaizkionean, harentzako onura ekonomikoa gutxitzen dutenak, tasaren oinarria proportzio berean gutxitu beharko da, hurrengo artikuluan ezartzen denari trazarik egin gabe.

Honako kasu hauetan ez da kobratuko tasarik ondasun publikoen erabilera pribatiboagatik edo ustiapen bereziagatik:

- a) Doako emakida edo baimenak direnean.
- b) Erabilera pribatiboak edo ustiapen bereziak onura ekonomikorik ez dakarrenean onuradunarentzat, edo, onura ekonomikoa egon arren, baldintza edo ordezkotza zerbitzu batzuk bete behar dituztenean, onura hori berdintzen dutenak edo hutsaren pareko egiten dutenak.

Hori baldintzen orrietan zehaztuko da edo erabilera pribatiborako edo ustiapen bereziko baimena emateko dokumentuetan.

Honela kitatuko da tasa:

1. Emakidak edo baimenak urtebeterako edo gehiagorako ematen direnean tasa hiru hilean behin kitatuko da: urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian. Gainerako kasuetan tasa ordainduko da emakida edo baimena ematen den unean.
2. Tasaren subjektu pasiboak tasa ordainduko du, eta hala dagokionean legeak agintzen duen bermea jarri, Kontabilitate Zerbitzuak horretarako dauzkan kontuetan.

UPV/EHUko inbentarioan eraikinek balorazio desberdinak dituztenez (transferituak izan diren ala unibertsitateak berak eraikiak diren), gerenteak zehaztuko du, ondare gaietan eskumena duenez gero, kasu bakoitzean dagokion tasa.

15. artikulua. Kopia soilak emateak eragindako tasak.

Tasak ezarri dira agirien kopia soilak edo ziurtagiriak egiteagatik, betiere administrazioak horiek aztertzeko aukera badauka.

Bildutako diruarekin diru sarrera egingo da "administrazio eta idazkaritza tasak" kontzeptupean.

Tasak III. eranskinean jasota daude.

IV. KAPITULUA. ZIENTZIA, TEKNIKA ETA ARTEAREN ARLOKO LANAK EGITEAGATIK EDOTA ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK EMATEAGATIK SORTUTAKO KANPOKO DIRU SARRERAK

16. artikulua. Lanen eta espezializazio ikastaroen kostuaren kalkulua.

1. Diru sarrerok 6/2000 Lege Organikoko 83. artikuluan eta UPV/EHUren Estatutueta 225.g artikuluan xedatutakoaren ondorio dira. Atal honetatik kanpo geratzen dira graduondoko ikastaroak emateak sortutako diru sarrerak.
2. Orokorrean, atxikipena egingo zaie diru sarrera hauei, LOUko 83. artikuluen babespean sinatutako Kanpo Kontratuei buruzko Arautegian ezarritako formula erabiliz. Atxikipena kalkulatzeko, dagokion portzentajea ezarriko zaio fakturako zenbatekoari (BEZ gabe). Hitzarmenen bidez lortutako diru laguntza eta diru sarreraren kasuan, atxikipena diru laguntzaren eta hitzarmenaren zenbatekoari egingo zaio.
3. Fakturaren guztizko zenbatekoa kalkulatzeko honako urrats hauek egingo dira:
 - a) Zerbitzuen kostua. Zerbitzuak ekarriko dituen gastu errealeen balorazioa egitea.
 - b) Unibertsitatearen gastu orokorretarako atxikipena egitea, idazkari nagusiaren 2008ko apirilaren 29ko 18 g) artikuluen arabera. Atxikipena kalkulatzeko, ezarritako formula aplikatuko zaio fakturako zenbatekoari (BEZ gabe). Atxikipenaren zenbatekoa zerbitzuen kostuari gehituko zaio, fakturaren zenbateko garbia kalkulatzeko.
 - c) BEZa ezartzea zerbitzuen kostuei.
 - d) Fakturaren zenbateko gordina aurreko hiru zenbatekoen batura izango da.

2016an indarrean diren kontratuen bidez edo LOUko 83. artikuluen babespean sinatutako hitzarmenen bidez egindako lanengatik nominaren osagarri bezala, gehienez ere, **127.127 €** kobratu ahal izango dira guztira.

17. artikulua. Zientzia, teknika eta artearen arloko lanak egiteagatik eta espezializazio ikastaroak emateagatik lortutako diru sarreraren kudeaketa.

1. Mota honetako diru sarrerak Ikerketaren arloko Errektoreordetzak horretarako duen kontuan ordainduko dira. Diru sarrera hauen gestioa ITRBk burutuko du, eta hasiko da bulego horrek kontratuaren edo hitzarmenaren zirriborroa onartzeko egin beharreko barne tramiteekin.

2. Une horretatik aurrera kanpo fakturazioak sortutako diru sarreraren gestioa hasiko da. Urrats hauek izango ditu.
 - a) Faktura sortu beharko da kontratuan zehaztutakoarekin bat etorritz. Hitzarmen edo diru laguntza bat izanez gero, ezin izango da fakturarik sortu, horrelakoetan ez baitago kontraturik. Aldi berean, Kontabilitate Zerbitzuari eskubide aitortuaren berri emango zaio, kontabiliza dezan.
 - b) Aitortutako eskubidea erregistratu ondoren, zerbitzua eman duen gune ORGANIKOARI aurrekontuko kreditua esleituko zaio fakturaren zenbatekoan, BEZa kenduta eta gastu orokorretarako atxikipena eginda. Diru laguntzen eta hitzarmenen bidezko diru sarreraren kasuan, fakturaren zenbatekoari gastu orokorren atxikipena kenduko zaio soilik.

18. artikulua. Zatikako diru sarrera aurreratua.

Kapitulu honetako aurreko artikulua eta paragrafoei traba egin gabe, sinatzen diren kontratu eta hitzarmenetan jasota egon beharko da aurrerapen bat ordainduko dela kontratuko lanari ekiteko "aurretik burutu beharreko zereginak egin eta bildu beharreko materialak biltzeko".

19. artikulua. Kobratu ezineko diru sarrera baten eragina zuzkitutako kredituan.

1. Kontratu, hitzarmen edo diru laguntza baten diru sarrera osorik kobratzearen edo batere kobratzearen inguruko zalantzarik balego, horrek ekar lezake esleitutako kreditua osoan edo zati batean blokeatzea.
2. Kobratzeko ezintasuna segurua denean, edo diru laguntza edo hitzarmena bertan behera uzten direnean, kreditua erretiratuko da, zenbateko osoa edo geratzen dena. Jasotako sarrera itzuli behar ez denean, modu honetara erretiratutako kreditua soberakintzat hartuko da.

Gunean kreditu saldorik ez balego erretiratzeko, UPV/EHUK hartuko du bere gain diferentzia, ekitaldiko baliabide orokorren kontura.

V. KAPITULUA. KANPOAN EMANDAKO BESTELAKO ZERBITZUETATIK ETA XEDE JAKIN BATERAKO DIRU LAGUNTZETATIK LORTUTAKO DIRU SARRERAK

20. artikulua. Kanpora zuzendutako argitalpenen eta bestelako zerbitzu eta jardueren kostua kalkulatzeko.

1. UPV/EHUKen Estatutuak 225. artikuluko f) atalean jasotako diru sarrerak dira, hau da: "argitalpenen salmentatik eta UPV/EHUK ematen dituen gainerako zerbitzu eta jarduera orokorretatik eratorritako diru sarrerak". Atal honetatik kanpo geratzen dira graduondoko ikastaroak ematetik sortutako diru sarrerak.
2. Orokorrean, % 5eko atxikipena egingo zaio lortutako diru sarreraren totalari.
3. Atxikipena kalkulatzeko, fakturako zenbatekoari (BEZ gabe) ezarritako portzentajea aplikatuko zaio. Hitzarmen bidezko diru laguntza eta diru sarreraren kasuan, atxikipena diru laguntza edo hitzarmenaren zenbatekoari egingo zaio.
4. Administrazio gastuetarako egiten den atxikipena UPV/EHUKen diru sarrera orokortzat

hartuko da, eta hala, ezin izango zaio inongo gune ORGANIKORI aurrekontuko krediturik esleitu atxikipen horren kontura.

5. Fakturaren guztizko zenbatekoa kalkulatzeko honako urrats hauek egingo dira:

- a) Zerbitzuen kostua. Zerbitzuak ekarriko dituen gastu errealen balorazioa egitea.
- b) Unibertsitatearen gastu orokorretarako atxikipena egin, 225. artikuluko f) paragrafoaren arabera. Atxikipena kalkulatzeko, ezarritako portzentajea aplikatuko zaio fakturaren zenbatekoari, BEZ barik.
- c) BEZa ezartzea zerbitzuen kostuei.
- d) Fakturaren zenbateko gordina aurreko hiru zenbatekoen batura izango da.

21. artikulua. Argitalpenetatik eta kanpokoentzat egindako bestelako zerbitzu eta jardueretatik lortutako diru sarrerak.

1. Zenbateko hauek zerbitzu zentralen kontuan sartuko dira.

2. Lehenengo tramitea izango da zerbitzu zentraletara bidaltzea sarrera ekarriko duen kontratua, hitzarmena edo diru laguntza emateko behin betiko erabakia. Hortik aurrera, urrats hauek egingo dira:

- a) Faktura egin beharko da, kontratuan, hitzarmenean edo xede jakinerako diru laguntzan zehaztutakoarekin bat etorriz, eta aitortutako eskubidea kontabilizatu beharko da aurrekontuko kontabilitatean.
- b) Aitortutako eskubidea erregistratu ondoren, zerbitzua eman duen gune ORGANIKOARI gastu ahalmena emango zaio, aurrekontuko kreditu baten bidez. Kredituaren zenbatekoa izango da fakturaren zenbatekoa ken BEZa, ken unibertsitateko gastu orokorretarako atxikipena, UPV/EHUren Estatutuetako 225. artikuluan ezarritakoaren arabera. Diru laguntzen eta hitzarmenen bidezko diru sarreren kasuan, fakturaren zenbatekoari gastu orokorren atxikipena kenduko zaio soilik.

22. artikulua. Diru sarrera partzial aurreratua.

Atal honetako aurreko paragrafoetan esandakoari traba egin gabe, sinatzen diren kontratu eta hitzarmenetan jasota egon beharko da aurrerapen bat ordainduko dela kontratuko lanari ekiteko "aurretik burutu beharreko zereginak egin eta bildu beharreko materialak biltzeko".

23. artikulua. Kobratu ezineko diru sarrera baten eragina zuzkitutako kredituan.

1. Kontratu, hitzarmen edo diru laguntza baten diru sarrera osorik kobratzearen edo batere kobratzearen inguruko zalantzarik balego, horrek ekar lezake esleitutako kreditua osoan edo zati batean blokeatzea.
2. Kobratzeko ezintasuna segurua denean, edo diru laguntza edo hitzarmena bertan behera uzten direnean, kreditua erretiratuko da, zenbateko osoa edo geratzen dena. Jasotako sarrera itzuli behar ez denean, modu honetara erretiratutako kreditua soberakintzat hartuko da.

Gunean kreditu saldorik ez balego erretiratzeko, UPV/EHUK hartuko du bere gain diferentzia, ekitaldiko baliabide orokorren kontura.

VI. KAPITULUA. BEREZKO TITULUETATIK ETA MASTERRETATIK ETORRITAKO DIRU SARRERAK

24. artikulua. Alderdi orokorrak

1. Arau orokorrak jasota daude Berezko Ikasketen Arautegian (2010eko abenduaren 22ko Gobernu Kontseiluan onartua). Arautegian zehazten denez, ikasketa hauek autofinantzatuak izan beharko dira beti.
2. Ikasleen matrikulen zenbateko osoari unibertsitatearen gastu orokorretarako atxikipena ezarriko zaie, UPV/EHUren Estatutuetao 225. artikuluko d paragrafoari jarraiki.
3. Atxikipena egiteko formula hau erabiliko da: $\text{kreditu kopurua} \times \text{ikasle kopurua} \times \text{Gizarte Kontseiluak ikasturte bakoitzean krediturako ezartzen duen prezioaren \% 10}$.
4. Administrazio gastuetarako egiten den atxikipena UPV/EHUren diru sarrera orokortzat hartuko da, eta hala, ezin izango zaio inongo gune organikori aurrekontuko krediturik esleitu sarrera horren kontura.
5. Gainera, % 2ko atxikipena egingo zaie, eta zenbateko hori dagokion errektoreordetzaren 3924 gune organikora joango da.

25. artikulua. Berezko tituluaren aurrekontua onartzea.

1. Berezko titulu bat onartzeko prozesuaren barruan, titulua sustatzen dutenek diru sarreraren eta gastuen aurrekontu bat aurkeztu beharko dute. Eduki hauek izan beharko ditu:
 - a. Sarreraren aurrekontuan:
 - Matrikulatik espero diren sarreraren ebaluazioa eta zenbatekoa.
 - Erakunde publiko edo pribatuen diru laguntzak.
 - Ikasturtea hasi aurretik tituluaren organikoan egongo den kreditu soberakinaren kalkulua.
 - Aurreikusitako bestelako diru sarrerak.
 - b. Gastuen aurrekontuan:
 - UPV/EHUko irakasleen ordainsariak.
 - UPV/EHUtik kanpoko hizlari eta irakasleen ordainsariak.
 - Gastu orokorretarako atxikipena (xehetasunetarako, ikusi Berezko Ikasketen Arautegia).
 - Gainerako gastu orokorrak.
2. Segurua denean titulua eman egingo dela, Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak epe bakoitzeko sarrerak bidaliko dizkio Kontabilitate Zerbitzuari.

26. artikulua. Matrikuletatik eskuratutako diru sarrerren kudeaketa.

1. Ikasleek berezko tituluetakotasen kontuan ordainduko dituzte matrikulak.
2. Diru sarrera horien kontrola Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak egingo du, eta aldiaren behin berezko tituluen tasetarako kontuetan egindako ordainketen berri emango dio Kontabilitate Zerbitzuari, kontabiliza ditzan.

27. artikulua. Diru laguntzetatik eskuratutako diru sarrerren kudeaketa.

1. Diru sarrerren aurrekontuan berezko tituluetarako jasotako diru laguntzak ez dira kontabilizatuko harik eta diru laguntza edo hitzarmen hori ordaintzeko konpromisoa egiaztatzen duen agiriren bat eduki arte.
2. Berezko tituluek edo master ofizialek jasotzen dituzten sarrera eta diru laguntzen gestioa Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak egiten du. Beraz, halakoetarako diru laguntzaren bat dagoela jakin bezain laster, horren berri eman beharko dio Kontabilitate Zerbitzuari, eskubidearen aitortpena kontabilizatu eta dagokion kreditua esleitzeko.
3. Diru laguntza edo sarrera egongo dela jakinaraztearekin batera, hori egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia igorriko dio Kontabilitate Zerbitzuari.

28. artikulua. Kobratu ezineko diru sarrera baten eragina zuzkitutako kredituan.

1. Kontratu, hitzarmen edo diru laguntza baten diru sarrera osorik kobratzearen edo batere kobratzearen inguruko zalantzarik balego, horrek ekar lezake esleitutako kreditua blokeatzea.
2. Kobratzeko ezintasuna segurua bada, edo diru laguntza, hitzarmena edo dena delakoa bertan behera uzten bada, kreditua erretiratu egingo da. Erretiratzeko krediturik ez badago, zati hori unibertsitateko baliabide orokorretatik jarriko da.

VII. KAPITULUA. IKERKETA PROIEKTUETARAKO XEDE JAKINEKO DIRU LAGUNTZAK

29. artikulua. Alderdi orokorrak

1. Honelako diru laguntzak xede jakineko diru sarrerak dira, ikerketa proiektu bat burutzekoak hain zuzen ere, diru laguntza emateko deialdiaren modalitatea edozein delarik ere.
2. Orokorrean, %5eko atxikipena aplikatuko da. Atxikipena kalkulatzeko, fakturako zenbatekoari dagokion ehunekoa aplikatuko zaio. Hitzarmenen bidez lortutako diru laguntza eta diru sarrerren kasuan, atxikipena diru laguntzaren edo hitzarmenaren zenbatekoari egingo zaio.

3. Diru laguntza ematen duen erakundeak zuzenean administrazio gastuetarako atxikipena ezartzen duenean, atxikipen horixe aplikatuko da organikoari kredituak esleitzean..
4. Administrazio gastuetarako egiten den atxikipena UPV/EHuren diru sarrera orokortzat hartuko da, eta hala, ezin izango zaio inongo gune ORGANIKORI aurrekontuko krediturik esleitu atxikipen horren kontura.

30. artikulua. Ikerketa proiektuetarako diru sarreren kudeaketa.

1. Ikerketa proiektuetarako diru sarreren gestioa Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du.
2. Ikerketa proiektuetarako diru laguntzak horretarako dagoen sarreren kontuan sartuko dira.
3. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proiektuetarako diru laguntzak emateko erabakien edukia eta xehetasunak ezagutu bezain laster, Kontabilitate Zerbitzuari jakinaraziko dizkio, eskubidearen aitortpena kontabiliza dezan.
4. Aitortutako eskubidea kontabilizatuko da urte horretarako jaso den zenbatekoan.
5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak kreditu esleipena egingo die ikerketa proiektuak burutuko dituzten guneei, aitortutako eskubidean erregistratutako diru laguntzaren zenbatekoan. I., II. edo VI. kapituluan egingo du esleipena, pertsonaleko gastua, gastu arrunta edo kapital gastua den.

31. artikulua. Kobratu ezineko diru sarrera baten eragina zuzkitutako kredituan.

1. Kontratu, hitzarmen edo diru laguntza baten diru sarrera osorik kobratzearen edo batere kobratzearen inguruko zalantzarik balego, horrek ekar lezake esleitutako kreditua osoan edo zati batean blokeatzea.
2. Kobratzeko ezintasuna segurua denean, edo diru laguntza edo hitzarmena bertan behera uzten direnean, kreditua erretiratuko da, zenbateko osoa edo geratzen dena. Jasotako sarrera itzuli behar ez denean, modu honetara erretiratutako kreditua soberakintzat hartuko da.

Gunean kreditu saldorik ez balego erretiratzeko, UPV/EHUK hartuko du bere gain diferentzia, ekitaldiko baliabide orokorren kontura.

VIII. KAPITULUA. KIROL EKINTZETATIK SORTUTAKO DIRU SARRERAK

32. artikulua. Alderdi orokorrak:

1. Hauek dira kirol ekintzetatik sortutako diru sarreren iturriak:
 - A. Unibertsitateko kirol txartelen kostua.
 - B. Kirol ekintzak egiteko diru laguntzak
 - C. Unibertsitateaz kanpoko erakundeek kirol-instalazioak erabiltzeagatik ordaindutakoa.
 - D. Ikasleentzat antolatzen diren jardueren kostua.

E. Kirol martxa eta lasterketetan izena emateko tarifak.

2. Diru sarrera horiek kudeatzen dituen gunea aldatu egiten da campus batetik bestera, eta gainera, campus bakoitzak bere banku kontuak ditu. Horrek guztiak eragina dauka diru sarrera horien kudeaketan.
3. Araba eta Gipuzkoako campusen kasuan, campuseko errektoreordetzak egiten du kudeaketa, eta Bizkaiko campusean, berriz, Kirol Zerbitzuak kudeatzen ditu diru sarrera horiek.
4. Gestioa egiten duen gunea edozein delarik ere, hurrengo artikuluetan sarrera mota bakoitzarentzat azaltzen den eskemari jarraitu beharko zaio.
5. UPV/EHUtik kanpoko pertsoneri bost euro kobratuko zaie kirol martxa eta lasterketetan parte hartzeagatik. UPV/EHUko jendearentzat doan izango da.

33. artikulua. Kirol ekintzetatik sortutako diru sarreren kudeaketa.

1. Campus bakoitzak horretarako daukan sarreren kontuan egingo dira ordainketak.
2. Xede jakin baterako diru sarrerak dira, 32. artikuluan azaldutako jarduerak burutzekoak, eta aurrekontuko kreditu espezifikoak esleitzen zaie.
3. Diru sarrera hauen kudeaketa eskema honen arabera egingo da:
 - a) Lehenengo eta behin, txartelen edo diru laguntzen egiaztagiriaren titularrek diru sarrera egingo dute bankuko kontuetan, eta horren ordainagiriak entregatuko dituzte.
 - b) Egokia den maiztasunaz, Kirol Zerbitzuak eta Arabako eta Gipuzkoako campusetako errektoreordetzak informazioa bidaliko diote Kontabilitate Zerbitzuari aurreko kontabilizazioaz geroztik jasotako ordainketek eta okerreko diru sarrerengatik egindako itzulketek. Modu honetara, kontabilizatuko dira metatutako sarrerak ken okerreko diru sarrerengatik itzulitakoa.
 - c) Sarrerak behin kontabilizatuta, kreditua esleituko zaio lortutako baliabideak kudeatuko dituen guneari.

IX. KAPITULUA. LANGILEAK HAUTATZEKO PROZEDURETATIK ETORRITAKO DIRU SARRERAK

34. artikulua.

1. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasleak zein administrazio eta zerbitzuetako langileak hautatzeko deialdietan parte hartzeko ordaindu behar diren tasak dira.
2. Diru sarrera hauek unibertsitatearen baliabide orokorren zati dira eta, zergei, subjektu pasiboari eta ordainketari dagokionez, beren araubide juridikoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta EAEko erakunde autonomoek tasa eta prezio publikoetarako ezarritakoa.
3. Tasak eskariak aurkeztean ordaindu beharko dira eta titulazio taldearen arabera izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legean ekitaldi bakoitzerako

ezarritako tarifekin bat etorritz.

2016ko ekitaldirako tarifak III. eranskinean daude.

X. KAPITULUA. ODONTOLOGIA KLINIKAK EMANDAKO ZERBITZUETATIK ESKURATUTAKO SARRERAK

35. artikulua. Alderdi orokorrak.

1. Odontologia Klinikaren egindako tratamenduetatik eta irakaskuntza eta bestelako jarduera klinikoetatik sortutako diru sarrerak dira.
2. Emandako zerbitzuak fakturatzeko, klinikak UPV/EHUren faktura arautua egingo du. Bezeroak hala eskatzen badu, klinikako kudeaketa programa espezifikoaren barruan ordaindutako tratamenduen fakturak egingo dira.
3. Klinikak eskuratzen dituen sarrerak bere aurrekontura joango dira.

36. artikulua. Odontologia Klinikak emandako zerbitzuetatik etorritako diru sarreren kudeaketa.

1. Ordainketak egingo dira klinikak horretarako daukan bankuko kontuan.
2. Kasuan kasuko faktura sortuz hasiko da tramitea. Faktura momentuan ordaindu ahal izango da, edo bestela beranduago, klinikaren kontuan dirua sartuz. Odontologia Klinikak bere kontuan sartuko ditu eskudirutan kobratutako fakturak, egoki iruditzen zaion maiztasunaz.
3. Odontologia Klinikak gestionatuko ditu berak kontabilizatutako diru sarrerak, egindako fakturen zenbatekoak, bere kontura egindako ordainketak eta gerora ordaintzeko egiten dituen fakturen eskubideen aitortpenak. Horretaz gain, kontabilizatutako sarrerei dagozkien kreditu esleipenak kontabilizatuko ditu.
4. Sarrerak gutxienez hilean behin kontabilizatuko ditu.
5. Kontabilitate Zerbitzuak aldiro gainbegiratuko du ea klinikako sarrerak kudeatzen diren horretarako ezarritako arauak jarraiki. Horretarako, honako irizpide hauek erabiliko ditu:
 - a) Kontabilitate Zerbitzuak kontabilizazio irizpideak ezarriko ditu bezeroen identifikaziorako, kontabilizazioaren maiztasunerako, kobratutako eta bankuan ordaindutako zenbatekoak dokumentatzeko eta abar.
 - b) Kobratzeke dauden fakturen antzintasuna.
 - c) Sarrerak kudeatzeko arauak betetzen ez direla ikusiz gero, Kontabilitate Zerbitzuak kendu ahal izango dio bere sarrerak kudeatzeko gaitasuna klinikari. Hala erabakiz gero, klinikako zuzendariari jakinaraziko dio alde zuzena.

37. artikulua. Kobratu ezineko diru sarrera baten eragina zuzkitutako kredituan.

1. Zerbitzu baten faktura osorik edo batere kobratzearen inguruko zalantzarik balego, horrek ekar lezake esleitutako kreditua osoan edo zati batean blokeatzea. Halakorik eginez gero, kreditu hori ez da jasoko, harik eta egoera konpondu arte.

2. Kobratzeko ezintasuna behin betiko bihurtu eta faktura deuseztatzen denean, kreditua erretiratuko da, zenbateko osoa edo geratzen dena. Kasu horretan Kontabilitate Zerbitzuak behar diren aldaketak egingo ditu aurrekontuan.

Tarifak IV. eranskinean daude.

I. ERANSKINA

PREZIOEN TAULA (Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia)

IRAKASLE GONBIDATUAK			Eguneko	
7 EGUNETATIK BEHERAKO EGONALDIA	BEZ barik	BEZa	BEZaren % 10arekin	
Banakako gela gosariarekin	38,18	3,82	42 €	
Binakako gela gosariarekin	69,09	6,91	76 €	
Banakako gela mantenu erdian	43,64	4,36	48 €	
Binakako gela mantenu erdian	80,00	8,00	88 €	
Banakako gela mantenu osoan	49,09	4,91	54 €	
Binakako gela mantenu osoan	90,91	9,09	100 €	
ASTEBETEKO EGONALDIA				Asteko
Banakako gela gosariarekin	34,55	3,45	38 €	266 €
Binakako gela gosariarekin	61,82	6,18	68 €	476 €
Banakako gela mantenu erdian	40,00	4,00	44 €	308 €
Binakako gela mantenu erdian	72,73	7,27	80 €	560 €
Banakako gela mantenu osoan	45,45	4,55	50 €	350 €
Binakako gela mantenu osoan	83,64	8,36	92 €	644 €
HAMABOSTALDIKO EGONALDIA				Hamabostaldiko
Banakako gela gosariarekin	30,91	3,09	34 €	510 €

Binakako gela gosariarekin	55,45	5,55	61 €	915 €
Banakako gela mantenu erdian	36,36	3,64	40 €	600 €
Binakako gela mantenu erdian	66,36	6,64	73 €	1095 €
Banakako gela mantenu osoan	41,82	4,18	46 €	690 €
Binakako gela mantenu osoan	77,27	7,73	85 €	1275 €
HILABETEKO EGONALDIA				Hileko
Banakako gela gosariarekin	28,18	2,82	31 €	930 €
Binakako gela gosariarekin	50,91	5,09	56 €	1680 €
Banakako gela mantenu erdian	31,82	3,18	35 €	1050 €
Binakako gela mantenu erdian	61,82	6,18	68 €	2040 €
Banakako gela mantenu osoan	39,09	3,91	43 €	1290€
Binakako gela mantenu osoan	72,73	7,27	80 €	2400 €
BI HILABETETIK GORAKO EGONALDIA				Hileko
Banakako gela mantenu osoan	34,20	3,80	38 €	1140 €
Binakako gela mantenu osoan	60,30	6,70	67 €	2010 €

GRADUKO ETA GRADUONDOKO IKASLEAK			Eguneko	
---	--	--	----------------	--

7 EGUNETATIK BEHERAKO EGONALDIA	BEZ barik	BEZa	BEZaren % 10arekin	
Banakako gela gosariarekin	30,60	3,40	34 €	
Banakako gela mantenu erdian	36,00	4,00	40 €	
Banakako gela mantenu osoan	41,40	4,60	46 €	
ASTEBETEKO EGONALDIA				Asteko
Banakako gela gosariarekin	27,00	3,00	30 €	210 €
Banakako gela mantenu erdian	32,40	3,60	36 €	252 €
Banakako gela mantenu osoan	37,80	4,20	42 €	294 €
HAMABOSTALDIKO EGONALDIA				Hamabostaldiko
Banakako gela gosariarekin	24,30	2,70	27 €	405 €
Banakako gela mantenu erdian	29,70	3,30	33 €	495 €
Banakako gela mantenu osoan	35,10	3,90	39 €	585 €
HILABETEKO EGONALDIA				Hileko
Banakako gela gosariarekin	21,60	2,40	24 €	720 €
Banakako gela mantenu erdian	27,00	3,00	30 €	900 €
Banakako gela mantenu osoan	32,40	3,60	36 €	1080 €

2 eta 4 HILABETE ARTEKO EGONALDIA				Hileko
Banakako gela mantenu osoan	28,80	3,20	32 €	960 €
4 HILABETETATIK GORAKO EGONALDIA:				
Banaka edo binakako gela mantenu osoan	26,55	2,95	29,50 €	885 €

IKASLEEN IKASTURTE OSOA (9 HIL):

2016-2017 ikasturtea: 7.434 euro, % 10eko BEZa barne.

OTORDUAK	BEZ barik	BEZa	BEZaren % 10arekin	
Otorduak	5,40	0,60	6 €	

OHARRA:

Fakturazioa UPV/EHUko BGG baterako bada, % 10eko deskontua egingo zaio tarifa honetan, ez baitagokio BEZik.

Hamar edo pertsona gehiagoren multzoen fakturazioa UPV/EHUren BGG bati dagokio, % 20ko deskontua egingo da.

II. ERANSKINA

UPV/EHUren LOKALAK ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TARIFAK

Instalazio mota "A"	1. TARIFA Ordu solteak Prezioa orduko	2. TARIFA Egun osoa 8:00etatik 20:00etara	3. TARIFA Egun erdia 8:00 - 14:00 eta 14:00 - 20:00
Areto nagusiak eta antzekoak, 800 plazatatik beherakoak	116	1.050	525
800 plazatatik gorako areto nagusiak	202	1.515	758
Gradu aretoak / Batzar aretoak	101	758	379
Eraikinen atariak	152	909	455
A motako ikasgelak (101 plazatak edo handiagoa)	61	545	273
B motako gelak (51-100 plaza)	40	364	182
C motako ikasgelak (50 plazatatik beherakoak)	20	202	101
ikasgela informatikoak:			
25 ordenagailu artekoak	131	1.162	581
25 ordenagailutatik beherakoak	152	1.384	692
Bideokonferentzia gela/aretoa	323	2.889	1.444
Multimedia gela/aretoa	40	1.273	636
Zuzenbide fakultateko judizio aretoa	101	758	379
"B"			
Gimnasioak	40	202	101
Gorputz adierazpeneko eta psikomotrizitateko gelak	20	81	51
Futbol 11ko zelaia	40	303	152
Futbol 7ko zelaia	20	152	76
Kiroldegi osoa (areto futboleko bi zelai)	40	303	152

Kiroldegi erdia (areto futboleko zelai bat edo saskibaloiko zelai bi edo boleiboleko kantxa bat)	20	152	76
Erabilera anitzeko aretoa	20	81	51
Tatamia	20	81	51
Muskulazio gela		20	
Eskalada horma		20	
"C"			
Audiolaba: 2, 3 edo 4. gela	60	540	270
Postprodukzioko audilab (1. lok.)	100	750	375
Bideolaba. Bideoaren postprodukzioko gela	60	540	270
Bideoa editatzeko gela (25 ordenagailu)	130	1.150	575
TV2 platoa * 2. kontrol gela	100	750	375
Gesell Laborategia	130	1.150	575
Cati Laborategia	150	1.370	685

Kanpo eremuak eta plazak	Eguneko
10 metro koadro arte	150
25 metro koadro arte	300
50 metro koadro arte	525
100 metro koadro arte	900
100 metro koadrotatik gora	1.200

Publizitate eta propoganda banatzea kanpoko eremu eta plazetan	Eguneko
- 5 banatzaile arte	200
- 6 eta 10 banatzaile artean	300

- 10 banatzaile baino gehiago	400
-------------------------------	-----

Tarifak aplikatzeko arauak:

"A" instalazio mota

Lokalak hiru modalitateren arabera aloka daitezke: 1. tarifaren, 2. tarifaren eta 3. tarifaren arabera. Azken bietan (2 eta 3) gehiegizko denbora kobratzeko 1. tarifa aplikatuko zaio benetan emandako gehiegizko ordu kopuruari.

Ordu zatiak goitik biribilduko dira ordu erdia gainditu bada, edo behetik, ordu erdira heldu ez bada.

Tarifaren modalitatea ezin izango da aldatu lokalak erabiltzen hasi ondoren.

Tarifan espazioaren alokairua baino ez da sartzen. Horri gehitu beharko zaio lokala garbitzeko lanaren kostua eta zerbitzua emateko behar diren langileena (atezaina, ikus-entzunezkoetako teknikaria eta abar).

Fidantza kalkulatzeko (alokairuaren kostuaren % 25, BEZ barik) orduen estimazioa hartuko da kontratuaren hasieran.

Lokalak erabiltzen amaitutakoan, benetan erabilitako orduen datuak bidaliko dira eta faktura egingo da.

"B" instalazio mota

Instalazioetako aldagelak eta dutxak ez daude prestatuta gurpildun aulkia darabiltenentzat. Kirol anitzeko pista eta futbol zelaia, berriz, prestatuta daude horrelako pertsonentzat.

Instalazio hauek bakarrik aloka daitezke eskola orduetatik kanpo.

Honako hauek ez dira prezioan sartzen: muntaketa lanak, aparteko prestaketa lanak, kasuan kasuko kirol materiala.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jartzeko, sarrera kobratzeko edo saltokirik jartzeko.

Instalazioa astero alokatzen bada gutxienez bost astean eta gehienez hamalau astean, % 20ko deskontua egingo zaio tarifari.

Instalazioa astero alokatzen bada gutxienez 15 astean, % 30eko deskontua egingo zaio tarifari.

Segidako asteak kontatzean ez dira aintzat hartuko asteburu eta jaiegunetako etenak.

Kirol anitzeko pista osoa alokatu arren, horrek ez du esan nahi eraikin osoa modu eksklusiboan alokatzen denik; aldageletan sartzen utzi beharko zaie beste erabiltzaileei, ez baitago besterik.

Kantxak, muskulazio gela, eskalada horma eta kiroldegiko ikasgelak bakoitza bere aldetik alokatu ahal izango dira. Instalazioa alokatzen denean argi eta garbi zehaztu beharko da zein elementu eta zein espazio alokatzen den.

Tatamian, gorputz adierazpeneko gelan eta psikomotrizitate gelan ez dago ez aldagelarik ez komunik. Instalaziook alokatzean kiroldegiko komunak eta aldagelak erabili nahi badira, instalazio biak garbitzeko lanak ordaindu beharko dira.

Instalazioak alokatzen badira jendearentzako orduetatik kanpo, atezain eta garbiketa zerbitzuen kostua ere ordaindu beharko da.

"C" instalazio mota

Instalazioak eskola orduetatik kanpo bakarrik alokatu ahalko dira, eta ezin izango zaie traba egin eskolei.

Tarifa horien barruan ez daude sartuta teknikarien laguntza, muntaketa lanak edo aparteko prestakuntza lanak.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jarri, sarrerarik kobratu edo saltokirik jartzeko.

Gune horien alokairua kudeatzeko, "Bizkaiko Campuseko Kanpoko eta Barneko Guneak Erabiltzeko Arautedia"ri jarraituko zaio, eta erreserba egiteko "Espazioak erreserbatu" izeneko aplikazioa erabili beharko da.

POSTPRODUKZIO ETA GRABAZIORAKO ARETOEN ALOKAIRUA

Bideoaren postproduzio edo ediziorako gelak eta grabazio ekipoak batera alokatzen badira, % 20ko deskontua egingo zaiei haien tarifei. Hauek dira ekipoen tarifak:

Ekipo mota	1. TARIFA Egun osoa 8:00 - 20:00	2. TARIFA 2 egun 8:00 - 20:00	3. TARIFA 4 egun 8:00 - 20:00	4. TARIFA Astebete 8:00 - 20:00
Grabazio kita Oinarrizko ENGa + eskuko mikrofonoa	100 €	180 €	320 €	500 €

Ekipo hauek alokatu nahi dituztenek aseguru poliza bat aurkeztu beharko dute, arrisku orotarako estaldurarekin.

Ekipoen alokairua kudeatuko da ikastegiak horretarako daukan arautegiaren arabera. Web orri honetan dago:

<http://www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es/p238-content/es/contenidos/informacion/instalaciones nuevas/es ins menu/mailegua.html>

III. ERANSKINA

LANGILEAK HAUTATZEKO PROZEDURETAN PARTE HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

ZENBATEKOA (eurotan)	Lanpostu arruntak	Ordezkapen lanpostuak
A titulazio taldea	22,02 €	11,00 €
B titulazio taldea	18,36 €	9,18 €
C titulazio taldea	14,66 €	7,33 €
D titulazio taldea	10,99 €	5,50 €
E titulazio taldea	7,33 €	3,67 €

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBETAKO EPAIMAHAIETAKO KIDEEN ORDAINSARIAK

	ZENBATEKOA (eurotan)
- Epaimahaiko burua	1.326 €
- Idazkaria	1.098 €
-Bokala	438 €+2,64 € zuzendutako etsamina bakoitzeko
-Administrari laguntzailea	327 €+ 0,33 € ikasleko
-Menpekoa	161 €
- Elkarrizketa	20,20 euro ikasleko
-Dokumentazioa epaimahaikideei helarazteaz arduratzen diren langileak	242 € + 0.066 € opositore bakoitzako

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUAN ETA JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUAN SARTZEKO PROBA BEREZIAN PARTE HARTZEN DUTEN IRAKASLEEN ORDAINSARIAK

	ZENBATEKOA (eurotan)
-Epaimahaiko burua	522 €
-Idazkaria	366 €
-Bokala	209 € + 2,12 € ikasleko

KOPIA SOILEN PREZIOAK

	ZENBATEKOA (eurotan)
-A4 tamainako zuri-beltzeko fotokopia	0,03 orriko
-A4 tamainako koloreko fotokopia	0,20 orriko
-A3 tamainako zuri-beltzeko fotokopia	0,10 orriko
-A3 tamainako koloreko fotokopia	0,40 orriko

IV. ERANSKINA

2016 IKASTURTEKO TARIFAK

HORTZ-HAGINAK ATERATZEA (ERRAZA)	5,00 €
HORTZ-HAGINAK ATERATZEA (KONPLIKATUA)	33,00 €
ALDE BIGUNEN TUMORAZIO TXIKIAK	43,00 €
GARBIKETA	27,00 €
KARRASKATZEA ETA KURETAJEA, KUADRANTEKO	38,00 €
ENPASTE SOILA (I-II-III-V. MOTAKOA)	27,00 €
ENPASTE KONPLEXUA (IV. MOTA ETA erdiranzko aldearena, gainarena, alboranzko aldearena)	43,00 €
ENPASTE SOILA (UMEAK)	16,00 €
ENPASTE KONPLEXUA (UMEAK)	27,00 €
BERROSATZE LAN HANDIAK	54,00 €
BERROSATZE LAN HANDIAK (UMEAK)	37,00 €
ENDODONTZIA: HODI 1	54,00 €
ENDODONTZIA: HODI 2	59,00 €
ENDODONTZIA: HODI 3	64,00 €
ENDODONTZIA: HODI 4	69,00 €
ENDODONTZIA: HODI 1 (UMEAK)	33,00 €
ENDODONTZIA: 2 HODI (UMEAK)	38,00 €
ENDODONTZIA: 3 HODI (UMEAK)	43,00 €
ENDODONTZIA: 4 HODI (UMEAK)	48,00 €
ZERAMIKA ETA METALEZKO KOROA OSOA	174,00 €
BEHIN-BEHINEKO KOROA	27,00 €
METAL URTUZKO ZIRIA	64,00 €
PROTESI OSOA, GOIKOA ETA BEHEKOA	536,00 €
PROTESI OSOA, GOIKOA EDO BEHEKOA	322,00 €
ERRETXINAZKO PROTESI PARTZIALA (0-4 pieza)	174,00 €
ERRETXINAZKO PROTESI PARTZIALA (5-8 pieza)	216,00 €
ERRETXINAZKO PROTESI PARTZIALA (8 piezatik gora)	280,00 €
METALEZKO PROTESI PARTZIALA (0-4 pieza)	238,00 €
METALEZKO PROTESI PARTZIALA (5-8 pieza)	280,00 €

METALEZKO PROTESI PARTZIALA (8 piezatik gora)	380,00 €
INPLANTEAREN OINARRIA BERRIRO BETETZEA	54,00 €
ORTODONTZIA: APARATOLOGIA FUNTZIONALA	360,00 €
ORTODONTZIA: ESPAZIOA MANTENTZEKOA	100,00 €
FERULA OKLUSALA	161,00 €

V. ERANSKINA

Kopien tarifak

ZURI-BELTZEKO FOTOKOPIAK (PENDRIVE ETA MOSTRADOREA)										
A4 ZB	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	gardenkia	itsasgarria	fosforittoa	Itsasgarria eta gardena
	0,05	0'10	0'15		0'10	0'15	0'40	0'25	0'25	0'75
A3 ZB	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	gardenkia	itsasgarria	fosforittoa	Itsasgarria eta gardena
	0'10	0'20	0'25	0'30	0'20	0'30	0'80	Ez	0'60	Ez

ZURI-BELTZEKO FOTOKOPIAK (URRUNEKO INPRIMATZE ETA AUTOINPRIMATZEA*)		
A4 ZB	80 gr.	
	Alde batetik	Alde bietatik
	0,04	0'035 (alde bakoitza)

* Aurreikusten da inprimatze aukera hau 2016 urteko lehenengo seihilekoan jarriko dela martxan.

KOLOREKO FOTOKOPIAK (PENDRIVE ETA MOSTRADOREA)										
A4 kolorea	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	gardenkia	itsasgarria	fosforittoa	Itsasgarria eta gardena
	0,20		0'25	0'30	0'25	0'30	0'50	0'40	Ez	0'90
A3 kolorea	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	gardenkia	itsasgarria	fosforittoa	Itsasgarria eta gardena
	0'40		0'50	0'60	0'50	0'60	Ez	Ez	Ez	Ez

KOLOREKO FOTOKOPIAK (URRUNEKO INPRIMATZE ETA AUTOINPRIMATZEA*)	
A4 kolorea	80 gr.
	0,20

Aurreikusten da inprimatze aukera hau 2016 urteko lehenengo seihilekoan jarriko dela martxan.

Enkoadernazioen tarifak

	txikia	ertaina	handia
Kolatua	1'20	1'50	1'80
Alanbreduna	1'80	2'10	2'40

TAPA SOLTEAK		
A4	0'10	0'15 (0,5 mik.)
A3	0'20	
Alanbreaz berrenkoadernatzea	1,00	

Akaberen tarifak

MANIPULATZEA	
Grapatzea	0'02 grapako
Plegatzea	0'02 unitateko
Giza baliabide teknikoak	21'00 orduko

KOADERNOA	
Lehenengoa	0'50
Gainerakoak unitateko	0'10

ESKANEATZEA	
Automatikoak	0'50 artiboko +0'05 orriko
Eskuliburua	0'50 artiboko +0'10 orriko

CD KOPIA	
DISKOAREKIN	1'50
DISKORIK GABE	1'00

PLASTIFIKATUA	
Txartela	0'45
A4	0'75
A3	1'25

Papera saltzeko tarifak

PAKETEAK	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	Itsasgarria	Itsasgarria eta gardena
A4	3'50	9'50	8'5	10'5	8	9'5	12	9'5
A3	9	18	17	21	13	19		

ALEA	80 gr.	100 gr.	160 gr. zuria	250 gr. zuria	80 gr. koloreko papera	160 gr. koloreko papera	Itsasgarria	Itsasgarria eta gardena
A4	0'01	0'02	0'04	0'06	0'02	0'05	0'15	0'70
A3	0'03	0'05	0'08	0'12	0'04	0'10		

BESTE ARAU BATZUK

KONTRATAZIOARI BURUZKO ARAUTEGIA

KONTRATAZIOARI BURUZKO ARAUTEGIA

Oro har, honako xedapen hauek dira aplikatu beharrekoak:

- Ekainaren 16ko 2/2000 legezko errege dekretua, administrazio publikoen kontratuei buruzko legearen testu bateratua (APKLTB) onesten duena eta geroko aldaketak.
- 773/2015 errege dekretua, abuztuaren 28koa, administrazio publikoen kontratuei buruzko legea garatuz, urriaren 12ko 1098/2001 errege dekretuak onartutako arautegi orokorraren zenbait xedapen aldatuz.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/07 Legearen parte bat garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onartu zuena.

Euskal Herriko Unibertsitatekoa:

- 17/2011 Dekretua, Otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez onartu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak
- UPV/EHUko errektorearen 2013ko urtarilaren 30eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa.
- UPV/EHUko Gerentearen 2010eko apirilaren 27ko Erabakia, UPV/EHUko Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzekoa.

KONTRATU GUZTIETAN AINTZAKOTZAT HARTU BEHARREKOAK

Honako hauek dira UPV/EHUko ohiko administrazio kontratuak:

- Obra kontratuak, eraikuntza lanak egiteko ohi dira, besteak beste, eraiketa berriak, zaharberritzekoak eta ohiko konponketak, higiezinaren eraispena, estalduren eraiketa eta itxierazko egiturak eta abar.
- Hornidura kontratuak, produktuak edo higiezinak erostekoak.
- Zerbitzu kontratuak, jarduera bat edo lan bat egitekoak, obra edo hornidura ez den zerbitzu eskuratzeko.
- Zerbitzuetarako kontratu bereziak, UPV/EHUren ikastegietan kafetegia, jantokiak eta kopiagintza gestionatzeko.

- Obra publikoen emakida kontratua, hau da, enpresaburu batek obra bat egitea gero berak ustiatzeko, normalean kanon bat ordainduz unibertsitateari. Adibidez, unibertsitate egoitzak.

Kontratuaren aurrekontu edo iraupenaren araberakoa izan ohi da tramitazioaren formalitateen zorroztasuna:

Kontratu txikiak:

50.000 euroatik beherako obra kontratuak (BEZ gabe) eta 18.000 euroatik beherako hornidura eta zerbitzu kontratuak (BEZ gabe).

Kontratu hauek ezin dira izan urtebetetik gorakoak eta ezin daitezke luzatu.

Kontratu hauetarako ez da publizitaterik egin behar eta tramitaziorako bakarrik behar da kreditua egotea eta faktura bidez ordaintzea.

Kontratu handiak

Kontratu handiak dira goian zehaztutako kopuruak edo epeak gainditzen dituztenak.

Obra kontratuetan aurrekontua 1.000.000 € (BEZ barik) baino gehiago ez bada, eta hornidura eta zerbitzu kontratuetan 100.000 € (BEZa barik) baino gehiago ez bada, kontratista prozedura negoziatuaren bidez aukera daiteke. Ahal dela, hiru eragile ekonomiko gonbidatu behar dira, haiekin kontratuaren baldintzak negoziatzeko.

Kopuruak horiek baino handiagoak direnean, esleipen prozedura irekia da, eta publizitate handiagoa egin behar da lizitazio fasean.

Kontratazioa kudeatzeko prozesua

UPV/EHUrentzat gastua dakarten kontratazio guztiak justifikatu behar dira (SPKLTB 109) eta kreditu egokia eta nahikoa eduki behar dute.

UPV/EHUri ez diote gasturik sortzen zerbitzuak kudeatzeko kontratu bereziek (kafetegiak, kopia zerbitzuak) edo obren emakidek (egoitzak...), horietan pertsona fisikoen edo enpresa kontratisten ordainsaria erabiltzaileek ordaintzen dutenetik baitator.

Labur esanda, kontratuetan enpresa kontratistak aukeratzeko prozedurak fase hauek ditu:

1. Kontratuaren beharra justifikatzea, premien memoriaren bidez.
2. Kontratuak gastua badakar UPV/EHUrentzat, kredituaren erreserba egingo da

("A" kontabilitate dokumentua).

Kontratuaren gauzapeak urtebete baino gehiago hartuko badu, edo kontratua hasiko bada gauzatzen tramiteak hasi diren urtearen hurrengoan, kasuan kasuko urteetan kreditua egongo den ziurtagiria egin beharko da.

3. Gastu espedientea eta esleipen prozedura hasteko agindua onartzea, kontratazio organoak beren-beregi sinatuko duen erabakiaren bidez.
4. Publizitatea edo gonbidapena, kasuan kasuko prozeduraren arabera.
5. Eskaintzak aurkeztea horretarako zehazten den epean.
6. Eskaintzen balioespen eta sailkapena.
7. Adjudikaziorako hautatukoek aurkeztu beharreko dokumentazioa auzkeztea.
8. Esleipena, argitarapena eta horren jakinarazpena bidaltzea. Orduan kreditu xedapenaren tramitea egingo da ("D" kontabilitate dokumentua).
9. Kontratistaren eta UPV/EHUren arteko kontratua formalizatu eta formalizazioa argitaratu.
10. Kontratua gauzatzea, adostutako epe(et)an.
11. Obra, hornidura edo lana jasotzea, onarpen akta sinatuz.
12. Prezioa ordaintzea adostutako baldintzetan (orduan egingo da ordaintzeko aginduaren tramitea: ("O" kontabilitate dokumentua).
13. Bermerako epea, eta hala badagokio, kontratuak betetzea bermatzeko jarritako behin betiko fidantzak itzultzea.

Hurrenkera horretan gorabeherak sortzen dira askotan enpresa adjudikataria hautatzeko tramitazioan (errekurtsoak), bai eta kontratuak exekutatzeko fasean direnean ere (exekuzio epea bertan behera utzi ustekabeen etorritako egoerengatik, exekuzio epea gehitzea, kontratua aldatu edo kontratu klausulak bete ez). Gorabehera horiek beren tramiteak eskatzen dituzte, eta Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuaren bidez egin behar dira.

ONDAREARI BURUZKO ARAUTEGIA

ONDAREARI BURUZKO ARAUTEGIA

1. Lege oinarriak

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetako 222. artikulua honakoa dio:
 1. UPV/EHUren ondarea unibertsitateak jabetzan edo titularitatean dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute, bai eta etorkizunean eskuratzen edo esleitzen zaizkionek ere, betiere arau orokorrei men eginez.
 2. UPV/EHUK jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa unibertsitatearen ondarean sartuko dira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko gerora haien erabilera beste erakunde batzuei esleitu ahal izatea.
2. Era berean, UPV/EHUren Estatutuetako 222. artikulua honako hau arautzen du bosgarren puntuan:

“UPV/EHUK bere ondarea eratzen duten ondasun eta eskubide guztien inbentarioa izango du, eta aldian-aldian eguneratuko”.
3. UPV/EHUren Estatutuetako 234. artikulua honako hau zehazten du:

Gastuen egoera orrian gastuaren kontzeptu guztiak eta zenbatekoak zehaztuko dira. Honako xehetasun hauek adierazita sailkatuko dira gastuak:

 - a) Gastu mota.
 - b) Programa edo helburua.
 - c) Gastu gunea.
 - d) Bestelakoak, unean unean erabakiko direnak.

Betiere, gastu arrunta eta inbertsio gastua bereiziko dira.

2. Ondarearen kudeaketa UPV/EHUn

Ondarearen kudeaketa oinarritzko irizpide hauen arabera egiten da:

1. Ondarearen kudeaketak fase hauek dauzka:
 - a) Gune organikoek inbentariatu ditzaketen elementuak erostea eta inbentario ofizialean sartzea.
 - b) Erabilera eta egoeraren eta erabileraren kontrola.
 - c) Inbentario ofizialetik kentzeko proposamena, horretarako onartuko diren arauak jarraiki.
2. Ondarearen kudeaketa Gerentziak kontrolatzen du, Kontabilitate Zerbitzuaren bitartez, eta horretarako UPV/EHUren gune organikoek ondarea nola gestionatzen duten gainbegiratzen du.
3. Ondarearen kudeaketan erantzukizun maila hauek daude:
 - a) Gune organikoen erantzukizuna: gune organiko iraukorraren aurrekontuarekin eta bere menpe dauden aldi baterako gune organikoen aurrekontuekin erositako ondareko elementuak. Horiez gain, organikoen erantzukizuna dira zerbitzu zentralak haien erantzukizun, erositako elementuak.

- b) Campusetako gerenteordetzen erantzukizuna: campusean kokatutako gune organiko iraunkorren ardurapeko elementuak.
 - c) Kontabilitate Zerbitzuaren erantzukizuna: UPV/EHUren inbentario ofizialean sartuta dauden elementu guztiak.
 - d) Ikastegien eta UPV/EHUren eraikin eta lokaletako espazioen erabilera kontrolatzen duten gainerako gune organikoen erantzukizuna: ondareko elementuak kokatuta dauden espazioen kontrol eta mantentze lana, arlo bakoitzari dagokion mantentze lanaren bitartez.
4. Elementuak inbentario ofizialean sartzeko, bertan eguneraturik jarraitzeko eta, beharrezkoa izanez gero, inbentariarik kentzeko prozedurak Gerentziak ezarriko ditu, Kontabilitate Zerbitzuaren proposamenez.
5. Ekipoak inbentarioan sartu eta gero, kasuan kasuko etiketa ofiziala jarriko zaie identifikatzeko.
- Gerentziak, halaber, arlo bakoitzeko espazioak mantentzeko irizpideak ezarriko ditu.

3. Inbentarioan sartu beharreko ondasunak

1. Ondasun inbentariagarriak dira hiru baldintza hauek betetzen dituztenak:
- a) UPV/EHUren gune organikoen aurrekontuaren kargura erosi dira, edo dohaintzan jaso dira, jabetzaren lagapen osoa formalki eginda.
 - b) Ondasunaren ezaugarriak direla eta, urtebete baino gehiago erabili ahal izango da gutxienez, berdin da noiz erositakoa den.
 - c) Ondasunaren balio indibiduala 150,25 euro baino gehiago da.

Hiru baldintzok bete ez arren, elementu baten ezaugarriengatik egoki ikusten bada elementu hori UPV/EHUren inbentario ofizialean sartzea, eta Kontabilitate Zerbitzuak hala proposatzen badu, Gerentziak inbentarioan sartu ahal izango du, horretarako dauden arauak jarraiki.

2. Ikerketa proiektuen emaitzak inbentarioan sartuko dira baldin eta jabetza intelektuala UPV/EHUrena bada, legearen arabera dagokien jabetzaren erregistroan sartu badira, eta unibertsitateari baliabide ekonomikoak ekarri ahal badizkiote. Inbentarioan sartuko den proiektuaren balioa kalkulatzeko, proiektuko gastu arrunten batura egingo da, Kontabilitate Zerbitzuak Gerentziari aurkeztutako proposamenaren arabera.

4. Inbentarioan sartu beharreko ondasunen balioa.

Ondasunen balio indibiduala irizpide hauen arabera kalkulatu da:

- 1. UPV/EHUK erositako ondasunen kasuan, balio indibiduala izango da erosketaren kostua gehi ondasuna martxan ipini arte izandako gastu guztiak.
- 2. UPV/EHUK egindako ondasunen kasuan balio indibiduala ekoizpenaren kostua izango da, hau da, ondasuna egiteko erosi ziren materialen prezioa.
- 3. UPV/EHUri dohaintzan emandako ondasunen kasuan, balio indibiduala izango da ondasunaren salmenta balioa.
- 4. Inbentarioan sartu beharreko ondasunen balio indibidualari gehituko zaio jasana bai baina kengarria ez den BEZa, unibertsitateak zergak kitatzeko une bakoitzean aplikatzen duen mekanismoaren arabera. Gauza bera egingo da elementua erostean sortzen den beste edozein tasarekin.

5. Inbentarioa egiteko epea

Aipatutako baldintzak betetzen dituen faktura **inbentarioan jaso** behar denez, behin kontabilizatu ondoren, inbentariorako erabiltzen den programa informatikoan desglosatuko da hilabeteko epean. Faktura kontabilizatzen den egunean irekiko da epe hori; beste gune organiko batzuetara banatzen diren fakturen kasuan, berriz, banatzen diren egunean hasiko da epea.

6. Zerbitzuak edo ondasunak erostea, inbentarioan sartuta dagoen ondasun bat erabilita prezio osoa edo zati bat ordaintzeko

1. Irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Erostean den ondasuna bere benetako balioaz erregistratuko da, trukean eman den ondasunaren balioa kendu gabe. Gainera, balio hori handitu ere egin ahal izango da, gastuen, tasen eta zeharkako zergen eraginez, gorago azaldu bezala.
- b) Trukean emango den ondasuna inbentariotik kenduko da, une horretara arte inbentario ofizialean izan duen kontabilitate balio garbiaren arabera.
- c) Elementu berria inbentarioan sartu eta trukean eman dena inbentariotik kentzearekin batera, eragiketa horiek ondarearen kontabilitatean erregistratuko dira, UPV/EHUren ondarearen balioa eguneratuta egon dadin.

Trukean eman den ondasuna beti kenduko da inbentariotik, eta eragiketak ere beti erregistratuko dira ondarearen kontabilitatean, kontuan hartu barik erositako ondasuna inbentarioan sartu behar den ala ez.

7. Inbentarioan sartuta dauden ondasunen balioa berriz aztertzea.

Inbentarioan sartuta dauden ondasunen balioa berriz aztertuko da honako kasu hauetan:

1. Hobekuntza lanen bat egiten denean, lanaren beraren edo haren eragina jasaten duen ondasunaren ezaugarrien ondorioz, ondasunaren balioa handitu egiten duena, edo haren erabilera epea luzatu egiten duena. Hobekuntza lanaren kontabilizazioa egiten denetik jaso beharko da aldaketa hori kontabilitatean.
2. Ondasunarekin zerikusirik ez daukaten gorabeherengatik komenigarri ikusten bada balioa berriz aztertzea, esate baterako, ezaugarri berberak daukaten ondasunen balioa handitu egin delako. Halakoetan, balioaren aldaketa UPV/EHUren kontabilitatean jaso beharko da, igoeraren eragiketa kontabilizatuta.
3. Eraikinetan egiten diren lanen edo konponketen kasuan, ondasunaren balioa handituztat emateko beharrezkoa izango da lan edo konponketa horien azken emaitza hauetako bat izatea:
 - a) Handitu egin da espazio erabilgarria eraikinean.
 - b) Kanpoko egitura konpondu edo hobetu egin da.
 - c) Eraikinean integratuta dauden makinak jarri dira, adibidez berogailua, aire girotua eta igogailuak. Oro har, eraikinetik aparte izateko arrazoirik ez duten makinak izaten dira.

8. Ikerketa proiektuen emaitzen tratamendua.

1. Ikerketa proiektuen emaitzak inbentario ofizialean sartu ahal izango dira, ibilgetu ez-material gisa, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Ikerketa proiektuen emaitzaren jabetza intelektuala unibertsitatearena da.
 - b) Ikerketa proiektuaren emaitza erregistratuta dago patenteen bulegoan, UPV/EHUren ondare ekonomikoko elementu gisa aitortua eta publikoki akreditatua izan dadin. Gainera, unibertsitateari baliabide ekonomikoak ekar diezazkioke, beste pertsona fisiko edo erakunde juridiko batzuei ustiapen eskubidea lagatzeko edo errentan emateko kontratuen bidez.
2. Inbentario ofizialean ibilgetu ez-material gisa sartuko den ikerketa proiektuaren balioa kuantifikatu ahal izateko, proiektua aurrera eramanean den urteetan kontabilizatu diren gastu arruntak batuko dira. Jabetza erregistratzeko tramiteen gastuak ere gehituko zaizkio proiektuaren balioari.
3. Ikerketa proiektu baten aurrekontuen kargura erosten diren ondasunak inbentarioan sartuko dira erosten diren unean, aurreko bi paragrafoen arabera proiektuari ematen zaion tratamendua edozein dela ere.

PFEZaren ATXIKIPENEI BURUZKO ARAUTEGIA

PFEZaren ATXIKIPENEI BURUZKO ARAUTEGIA

Hemen bakarrik azalduko ditugu UPV/EHUko plantilakoak ez diren baina unibertsitatearentzat zerbitzuren bat egiten duten pertsoneri egin beharreko atxikipenak. Esan bezala, pertsona hauek ez dira unibertsitatekoak, eta, hortaz, ez dute nominarik bertan.

UPV/EHUko langileei atxikipena egingo zaie taularen arabera, hilabete bakoitzeko nominari aplikatuta. Horretarako, kontuan izango dira ordainsari guztiak eta hartzailearen zirkunstantzia pertsonalak.

1. BEKAK

Hiru Lurralde Historikoetako foru arautegiek adierazten dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzetik salbu daudela beka publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateek emandako bekak jasotzen dituzten pertsonak, beka hauek Espainian ikasteko nahiz atzerrian ikastekoak izan, hezkuntza sistemako edozein maila eta gradutan, unibertsitateko hirugarren zikloan barne.

Hortik kanpoko ikasketetarako bekei, berriz, PFEZaren atxikipena egin behar zaie. Oro har, lan etekinak izango dira hartzailearentzat, eta ondorioz, ordaintzen direnean atxikipena egingo zaie.

2. HIRUGARRENAK UNIBERTSITATEARI ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Hirugarren batek unibertsitateari zerbitzu bat egiten dionean, horregatik ematen zaion ordainsaria bi modutan trata daiteke:

- Jarduera ekonomiko baten etekin gisa
- Lan etekin gisa

Bai batean, bai bestean, ordainketek euskarri dokumental egokia izan beharko dute.

2.1- HIRUGARREN BATEK UNIBERTSITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK, JARDUERA EKONOMIKOAREN ETEKIN GISA HAR DAITEZKEENAK

Etekinak jarduera profesional baten ordaina direnean, diru sarrerei **% 15eko** atxikipena egingo zaie; jarduera profesionaletan hasten diren zerga ordaintzaileen kasu berezian, atxikipena **% 7koa** izango da, bai jarduerak hasten dituzten urtean eta baita hurrengo bietan ere.

% 7ko atxikipena aplikatzeko, etekinen hartzaileak bere egoera jakinarazi beharko dio unibertsitateari, dokumentu idatzi eta sinatu batekin.

Salbuespen batzuetan **% 1** aplikatuko da, esate baterako nekazaritza eta abeltzaintza jardueren zenbait etekinetan eta estimazio objektiboaren erregimena duten zenbait jarduera enpresarialen etekinetan.

Alokairutik eratorritako etekinei, berriz, **% 19,5** aplikatuko zaie.

Sariei ere % 19,5eko atxikipena egingo zaie. Saria 300 eurokoa edo gutxiagokoa bada, ez zaio atxikipenik egingo.

2.2- HIRUGARREN BATEK UNIBERTSITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK, LAN ETEKINTZAT HAR DAITEZKEENAK

Lan etekintzat hartzen da unibertsitateak hirugarren bati ordaintzen diona noizik behin honako kontzeptu hauetan emandako zerbitzuengatik:

- Ikasleei emandako laguntzak, baina 1. ataletik (Bekak) kanpokoak direnak, eta betiere deialdi baten barruan eta erabaki baten bidez esleitu badira. Laguntzok lan etekintzat hartuko dira eta gutxienez % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik.
- Irakasle-ikerzaileei doktorego tesietan eta epaimahaietan parte hartzeagatik egindako ordainketak, eta bigarren hezkuntzako irakasleei hautaprobetako epaimahaietan egoteagatik egindako ordainketak lan etekintzat hartuko dira eta % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik.
- Beste unibertsitate batzuetako irakasleei noizik behin hitzaldiak emateagatik, eskola magistralak emateagatik, ikerketa proiektuetan kolaboratzeagatik edo beste edozelako lankidetzagatik egindako ordainketak lan etekintzat hartuko dira eta % 15eko edo % 7ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik, 2.1 atalean adierazi bezala.
- Irakasle izan gabe une jakin batean unibertsitatearekin kolaboratu dutenei % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik, unibertsitateak bere zerga betebeharrak betetzeko.

2.2-1. ZERGAK BESTE HERRIALDEREN BATEAN ORDAINTZEN DITUZTEN HIRUGARRENAK

Bizileku iraunkorrik gabeko hirugarren ez-egoiliar batek Espainian egindako jarduera ekonomikoetatik eskuratutako etekinek ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu beharko dute (aurrerantzean, EEEZ); gaur egun, % 20ko zerga tasa da Europar Batasunean, Norvegian eta Islandian eta % 24 gainerako herrialdeetan.

Erregimen orokor hori aplikatuko da, baldin eta ez badago aplikatu beharreko zerga erregimena erabakitzen duen nazioarteko arautegirik edo nazioarteko zergapetze bikoitzerako hitzarmenik (ZBH). Halako arautegi baten ondorioz EEEZren atxikipena aplikatzen ez denean, hirugarrenak aurkeztu beharko du zerga egoitzaren egiaztagiria, dagokion zerga agintaritzak emana. Bertan, argi eta garbi adierazi beharko da zergaduna hitzarmenean definitutakoaren moduko egoiliarra dela. Egiaztagiriak urtebeterako balioa dauka.

UPV/EHUri zerbitzuak eman dizkion hirugarren horrek EEEko herrialde batean badauka zerga egoitza, eta fakturari BEZa aplikatzen badio, unibertsitateak bere buruari jasanaraziko dio eragiketari dagokion BEZa.

Zalantza izanez gero ZBH baden edo ez, galdetu Kontabilitate Zerbitzuan.

3. UPV/EHUtik KANPOKO HIRUGARRENEN DIETAK

Oro har, eta ahal den heinean, UPV/EHUK gestionatu, tramitatu eta ordainduko ditu garraio kolektiboetan eta hoteletako egonaldietan unibertsitatetik kanpoko hirugarrenek egindako gastuak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotako dieta eta gastuen erregimena EZ zaie aplikatu behar jarduera profesional baten etekinei. Beraz, ez zaie deitarik ordainduko profesionalei, eta, beraz, joan-etorrien eta mantenuaren gastuak kobratu nahi badituzte, sartu beharko dituzte zerbitzuengatik kobratuko duten zenbatekoaren barruan, eta hortaz, fakturan joango dira eta dagokion atxikipena egingo zaie.

Joan-etorriengatik eta mantenuagatik hirugarrenei ordaindutako kopuruak, hirugarren horiek profesionalak ez badira, lan etekintzat joko dira, eta PFEZen atxikipena egingo zaie, salbu eta gastuak fakturen bidez justifikatuta daudenean.

Horrez gain, norbere autoa joan-etorrietarako erabiltzeagatik sortutako gastua beti da lan etekina, eta, beraz, PFEZaren atxikipena egin behar zaio.

4. NOLA ZENBATU PFEZ DUTEN FAKTURAK

Aplikaturako PFEZ motaren arabera honako deskontu hauek aplikatuko dira:

KONTUA	DESKRIBAPENA	EREDUA	GAKOA	AZPIGAKOA	
32475102	ETEKINEN % 15eko PFEZa JARDUERA EKONOMIKOAK	190	G	1	Jarduera ekonomikoaren etekina, fakturarekin
32475102	ETEKINEN % 7ko PFEZa JARDUERA EKONOMIKOAK	190	G	3	Jarduera ekonomikoaren etekina, lehenengo urte bietan fakturarekin
32475101	IKAST., HITZALD., MINT., ETA ANTZEKOETAKO IRAKASLEEN PFEZa (% 15)	190	F	2	Ikastaroak, hitzaldiak... fakturarekin edo gabe.
32475106	LAN ETEKINEN PFEZa (% 2)	190	A		Epaimahaiak, tesiak, kolaborazioak
32475107	ALOKAIRUEN % 19,5eko PFEZa	193	C		Ondasun higiezinaren alokatzeak eta azpialokatzeak.
32475108	ESTIMAZIO OBJEKTIBOAREN PFEZa (% 1)	190	H	1	
32475111	SARIEN PFEZa (% 19,5)	190	K	1	Sariak
32475109	EEEZ: EZ-EGOILIARRAK, EUROPAKO BATASUNEKOAK (% 19,5)	296	1	1	Europar Batasuna, Norvegia eta Islandia
32475109	EEEZ: EZ EGOILIARRAK, EUROPAKO BATASUNETIK KANPOKOAK (% 24)	296	1	1	Gainerako herrialdeak

REGULACIÓN GENERAL DE LA GESTIÓN ECONÓMICA

TÍTULO I. LAS UNIDADES ORGANICAS Y LAS CUENTAS BANCARIAS

CAPÍTULO I LAS UNIDADES ORGANICAS Y RESPONSABILIDAD EN SU GESTIÓN

Artículo 1. Tipos de Unidades orgánicas

En el modelo organizativo de la UPV/EHU con una estructura de gestión del gasto descentralizada se distinguen dos tipos de Unidades de Gasto.

1. Unidades orgánicas permanentes. Son aquellas que forman parte de la estructura Orgánica de la Universidad y que de acuerdo con lo establecido en el artículo 10 de los Estatutos de la UPV/EHU son: Campus Universitarios, Escuelas y Facultades, Departamentos, Institutos Universitarios de Investigación, Escuelas de Doctorado y otros centros o estructuras que puedan crearse además de los Servicios Administrativos Generales, los que sirven a las estructuras mencionadas, los regulados en el Título VI, y las demás unidades administrativas y de servicios.
2. Unidades orgánicas transitorias. Son aquellas que se constituyen para fines de investigación, de docencia, de ejecución de contratos u otro tipo de actividad por un periodo de tiempo determinado y que una vez finalizada su misión, se procederá a su cierre.
3. Las Unidades orgánicas transitorias dependerán de una Unidad Orgánica permanente.

Artículo 2. Personas responsables de la gestión económica en las Unidades de gasto.

1. Las Unidades orgánicas tendrán dos personas titulares responsables para realizar la gestión económica.
2. Sin perjuicio de la regulación existente en las Unidades Orgánicas en materia de funcionamiento, gestión, administración, etc., la competencia y responsabilidad económica de éstas será la siguiente:
 - a) Centros Docentes. La primera será el Administrador o la Administradora del Centro o, donde exista, el o la Jefe de Administración y la segunda será el Decano o la Decana, el Director o la Directora del Centro.
 - b) Departamentos Universitarios. La primera será el Secretario o la Secretaria académico/a del Departamento y la segunda será el Director o la Directora del Departamento.
 - c) Institutos Universitarios. La primera será el Secretario o la Secretaria del Instituto y la segunda será el el Director o la Directora del Instituto.
 - d) Servicios Centrales. La primera será el o la Vicegerente de Presupuestos y Contabilidad y la segunda será el o la Gerente.
 - e) Vicerrectorados. La primera será el o la Vicegerente, en el caso de los Campus; el o la Jefe/a de Servicio en aquellos en los que exista este tipo de puesto, o la persona a quien designe el Vicerrector o la Vicerrectora y la segunda será el Vicerrector o la

Vicerrectora.

- f) Servicios. La primera será el o la Jefe del Servicio o persona que designe el Vicerrector o la Vicerrectora y la segunda será el Vicerrector o la Vicerrectora.
 - g) Unidades orgánicas transitorias. La primera será el o la titular principal del proyecto, contrato, subvención, curso, postgrado, congreso o reunión científica y la segunda será el Director o la Directora del Departamento al que pertenece la primera persona titular antes mencionada.
3. En el caso de que la primera persona responsable de una Unidad orgánica transitoria sea, a su vez, primera responsable de la Unidad Orgánica, de la que depende aquélla, la segunda persona responsable de la Unidad transitoria, se designará por la Junta de Centro, Consejo de Departamento o Consejo de Instituto, de entre sus miembros.
 4. En el supuesto de que la apertura de una unidad orgánica transitoria se deba a la realización de una actividad relacionada con un Centro Académico, la primera persona responsable será el Administrador o la Administradora del Centro y la segunda persona responsable será el Decano o la Decana, o el Director o la Directora.
 5. Para los casos no contemplados anteriormente, la designación de las personas responsables de una Unidad de gasto transitoria la realizará el o la Gerente.

CAPÍTULO II Creación, modificación y cierre de unidades orgánicas.

Artículo 3. Creación o modificación de una Unidad Orgánica.

Se solicitará al Servicio de Contabilidad desde el correspondiente Vicerrectorado, Unidad, Servicio... en función de la actividad adjuntando una copia del acuerdo adoptado por el órgano competente de aprobación de la creación o modificación de la unidad.

Artículo 4. Creación o modificación de una Unidad transitoria.

1. La creación de una Unidad orgánica transitoria se producirá cuando se den los hechos siguientes:
 - a) Proyectos de investigación concedidos por la UPV/EHU u otras instituciones.
 - b) Existencia de recursos que con carácter finalista van a destinarse a la realización de una actividad concreta. (Cursos, Congresos,...).
 - c) Complejidad de la gestión de los recursos finalistas que aconseja su separación del resto de los recursos generales de la Unidad Orgánica.
2. La solicitud de creación tendrá su origen en los siguientes órganos:
 - a) El Vicerrectorado de Investigación para las Unidades destinadas a la realización de proyectos de investigación, realización de contratos, convenios, trabajos científicos, técnicos o artísticos y cursos de formación suscritos.
 - b) El Vicerrectorado de Estudios de Postgrado y Relaciones Internacionales para las Unidades destinadas a la realización de cursos de postgrado, masteres oficiales, doctorados, títulos propios y demás cursos.

- c) Cualquier otro Vicerrectorado.

La creación o modificación de una Unidad orgánica transitoria se solicitará al Servicio de Contabilidad a través de los impresos que se faciliten para tal efecto.

Artículo 5. Cierre de una Unidad orgánica

